

Aurkibidea

1.	Lehen urratsak.....	5
1.1	Sistemaren hizkuntza	5
1.2	Wifi-sare batera konektatzea.....	6
1.3	Erabilera-baldintzak.....	6
1.4	Erabiltzaile-esperientziaren programa	7
1.5	Erroreen erregistro-datuak igotzea.....	8
1.6	Aplikazioen eta datuen kopia.....	8
1.7	Googleko zure kontuarekin saioa hastea.....	8
1.8	Hatz-markak, aurpegia eta kodea.....	9
1.9	Wifiaren morroia	10
1.10	Eguneraketa automatikoa gauez	11
1.11	Datuak inportatzea	12
1.12	Konfigurazioa amaitzea	13
2.	Komunikazioak eta sarea	14
2.2	Wifia.....	17
2.3	Haririk gabeko beste konexio batzuk.....	21
2.4	Hegazkin modua	24
2.5	Ez molestatzea	25
2.6	Kontaktuak.....	26
3.	Oinarrizko kontzeptuak.....	34
3.1	Telefonoa aktibatzea	34
3.2	Telefonoa desblokeatzea	35
3.3	Doikuntzetan bilatzea.....	39
3.4	Soinu- eta bibrazio-ezarpenak konfiguratzea.....	39
3.5	Pantaila eta distira	43
3.6	Kontrol adimendunak.....	48
3.7	Alboko barra adimenduna.....	51
3.8	Pantaila-argazkia.....	54
3.9	Aplikazioak pantaila zatituan.....	54
3.10	Aplikazioak bikoiztea	57
3.11	Energia aurrezteko moduak	58

3.12	Kontrol-zentroa.....	60
3.13	Jakinarazpen-zentroa.....	61
3.14	Egoera-barra.....	64
3.15	Aplikazioetarako lasterbideak.....	65
3.16	Teklatua eta idazteko metodoa.....	66
3.17	OPPO Share	69
3.18	Doikuntzak, fitxategiak eta informazioa bilatzea.....	70
3.19	Irisgarritasuna	71
3.20	Biltegiratzeko lekua egiaztatzea eta lekua egitea.....	74
3.21	Telefonoaren segurtasun-kopiak egitea.....	76
3.22	Telefonoa kargatzea	78
3.23	Telefonoa berrabiaraztea	78
3.24	Telefonoa itzaltzea	79
3.25	Pribatutasuna eta segurtasuna	79
3.26	Informazioaren eta baimenen kudeaketa	79
3.27	Larrialdiak (SOS).....	81
3.28	Pribatutasun-kodea.....	83
3.29	Aplikazioak zifratzea	83
3.30	Pantaila nagusian ikonoak ezkutatzea.....	83
3.31	Ordainketak babestea	84
3.32	Jazarpenaren aurkako aukera	84
3.33	Kids Space	85
3.34	Kutxa gotorra	86
4.	Tresnak eta aplikazioak.....	88
4.1	Aplikazioei buruzko oinarriko kontzeptuak.....	88
4.2	Erlojua.....	93
4.3	Eguraldia.....	98
4.4	Kalkulagailua	100
4.5	Iparrorratza.....	101
4.6	Deiak.....	104
4.7	Mezuak.....	109
4.8	Fitxategien kudeatzailea.....	111
4.9	Telefonoaren kudeatzailea.....	112
4.10	Musika.....	115

4.11	Grabagailua.....	118
4.12	Pantaila grabatzea	119
4.13	Esku bakarraren modua.....	121
4.14	Gidatze adimenduna.....	121
4.15	Telefonoa klonatzea	121
4.16	Morroï adimendunak.....	123
5.	Kamera.....	125
5.1	Argazkiak ateratzea.....	125
5.2	HDR	126
5.3	Angeluhandi modua	126
5.4	Kolore bizien modua.....	127
5.5	Argazki-iragazkia.....	128
5.6	Erretratu modua	129
5.7	Argazkiak ateratzeko keinua.....	130
5.8	AAren bidez hobetzea.....	130
5.9	Ultragau modua.....	130
5.10	Argazki panoramikoak ateratzea.....	131
5.11	Aditu modua.....	132
5.12	Sticker-ak	133
5.13	Kameraren doikuntzak	133
5.14	Ur-marka	134
5.15	Bideo-argazkia	136
5.16	Bideoak kamera geldoan.....	136
5.17	TIME LAPSE bideoa.....	136
5.18	Bideoak editatzea	137
5.19	Argazkiak.....	139
5.20	Jokoen gunea.....	145
6.	Zure telefonoa eguneratzea, leheneratzea eta berrezartzea.....	154
6.1	Softwarea eguneratzea	154
6.2	Telefonoaren leheneratzea.....	155
7.	Laguntza eta zerbitzua	156
7.1	OPPOren laguntza-zerbitzuarekin harremanetan jartzea	156
7.2	Saldu osteko zerbitzua	157
7.3	Laguntza eskuratzea eta arakatzea	157


7.4	Informazio gehiago	157
-----	--------------------------	-----

1. Lehen urratsak

Zure telefonoa lehen aldiz konfiguratzeko edo leheneratzeko, segi doikuntzak osatzeko jarraibideei.

1.1 Sistemaren hizkuntza

Hautatu sistemaren hizkuntza.



1.2 Wifi-sare batera konektatzea

- Wifi-sare batera pasahitzik gabe konektatzeko, ukitu sare-izena.
 - Wifi-sare batera pasahitzarekin konektatzeko, ukitu sare-izena, idatzi pasahitza, eta ukitu «Sartu».
 - Sistemak ez badu detektatzen konektatu nahi duzun sarea, ukitu «Gehitu sarea eskuz». Idatzi sare-izena, hautatu segurtasun-protokoloa eta idatzi pasahitza. Ondoren, ukitu «Sartu». Oraindik ez baduzu konektatu nahi wifi-sare batera, ukitu «Saltatu» goiko eskuineko izkinan.
-

1.3 Erabilera-baldintzak

Zure OPPO telefonoa erabili aurretik, Erabilera-baldintzak eta Pribatutasun-politika onartu behar dituzu.



Erabilera-baldintzak irakurri eta onartzen dituzula adierazteko, ukitu «Onartu».

1.4 Erabiltzaile-esperientziaren programa

Sistema erabiltzeko zure moduari buruzko informazioa partekatu nahi baduzu OPPOren produktu eta zerbitzuak hobetzen laguntzeko, erabiltzaile-esperientziaren programan izena eman dezakezu.

Erabilera-baldintzak irakurri eta onartzen dituzula adierazteko, ukitu «Onartu». Parte hartu nahi ez baduzu, ukitu «Ez, eskerrik asko».

1.5 Erroreen erregistro-datuak igotzea

OPPO telefonoetan erabiltzaile-esperientzia hobetzen lagundu nahi baduzu, baimena eman dezakezu zure telefonoak erregistro-datuak igo ditzan.


Erabilera-baldintzak irakurri eta onartzen dituzula adierazteko, ukitu «Onartu». Erroreen erregistro-datuak igo nahi ez badituzu, ukitu «Ez nago ados».

1.6 Aplikazioen eta datuen kopia

Zure Googleko kontuan zure aplikazioen eta datuen kopiak egin nahi badituzu, ukitu «HURRENGOA». Bestela, ukitu «EZ KOPIATU».

1.7 Googleko zure kontuarekin saioa hastea

Zure Googleko kontuan saioa has dezakezu zenbait funtzio eta aplikazio erraz erabili ahal izateko.




1.8 Hatz-markak, aurpegia eta kodea

Zure hatz-marka, aurpegia edo kode bat erabil dezakezu zure telefonoa desblokeatzeko.

Oharra: berrabiarazi ondoren, zure telefonoa desblokeatzeko kodea sartu beharko duzu nahitaez. Zure kodea berrezartzeko, zoaz «Ezarpenak» aukerara


Kode guztiak telefonoaren segurtasun-moduluan bakarrik gordetzen dira, eta ez sistemak, ez aplikazioek ezin dituzte eskuratu.



1.9 Wifiaren morroia


«Hautatu automatikoki Wi-Fi onena» aktibatzen duzunean, zure telefonoak gertuko wifi-sareen kalitatea detektatuko du, kalitate oneneko hautatu, eta hara konektatuko da.

«Hautatu automatikoki Wi-Fi onena» aukera aktibatuta edukiz gero, «Aldatu automatikoki sare mugikorrera» aukera ere aktibatu ahal izango duzu. Wifi-sareen seinaleak ez badu nahikoa indar eta datu mugikorrak aktibatuta baldin badaude, telefonoa sare mugikorrera aldatuko da automatikoki.




1.10 Eguneraketa automatikoa gauez

«Eguneratu automatikoki gauez» funtzioa aktibatzen baduzu, bertsio berria duten aplikazioak automatikoki eguneratuko dira 2:00-5:00 artean, telefonoa erabiltzen ari ez bazara.



1.11 Datuak inportatzea

Zure telefonoa OPPO telefono berri gisa ezar dezakezu, edo beste telefono batetik segurtasun-kopiak inportatu.



1.12 Konfigurazioa amaitzea

Konfigurazioa amaitutakoan, ukitu «Hasi probatzen» zure OPPO telefono berria erabiltzen hasteko.



2. Komunikazioak eta sarea


2.1.1 SIM txartela eta datu mugikorrak

Zure telefonoak bi SIM txartelak onartzen ditu.


SIM txartela sartzea

SIM txartelaren erretilua telefonoaren eskuineko aldean dago, bolumen-teklen gainean. Erretilua irekitzeko, sartu SIM txartelaren giltza (telefonoarekin dator) erretiluaren gainean dagoen zulo txoan, eta atera ezazu kontu handiz. Erretiluaren bi sekzioa nanoSIM txartel bana har dezakete, eta hirugarrenean microSD txartel bat jar daiteke.

Bi SIM txartel sartzean, bietako bat lehenetsi dezakezu deiak egiteko, edo eskuz hautatu deitzeko garaian. Horrez gain, SIM txartel bat hauta dezakezu sare mugikorrarekin erabiltzeko.



SIM txartelei izena aldatzeko eta sare mugikorraren doikuntzak aldatzeko, zoaz hona: «Ezarpenak» > «SIM duala eta sare mugikorra».




2.1.2 Datuak aurreztea

Datuak aurrezteko modua aktibatuta, bigarren mailan martxan dauden aplikazioek ezingo dituzte datu mugikorrak erabili. Bigarren mailan martxan dagoen aplikazioak datuak aurrezteko neurriak hartuko ditu, hala nola argazkien bereizmena murriztea. Gainera, ezingo ditu sarea partekatzeo funtzioak erabili. Egoera-barran datuak aurrezteko moduaren ikonoa bistaratuko da.

Datuak aurrezteko modua aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «SIM duala eta sare mugikorra» > «Datuak aurreztea», eta aktibatu «Datuak aurreztea».


Datuak aurrezteko modutik aplikazio batzuk salbuetsi nahi izanez gero, ukitu «Murriztu gabeko aplikazioak».



2.2 Wifia


2.2.1 Wifi-konexioa

Sakatu «Ezarpenak» > «Wi-Fi», eta aktibatu wifia. Detektatutako wifi-sareak bistaratuko dira.



- Wifi-sare batera pasahitzik gabe konektatzeko, ukitu sare-izena.
- Wifi-sare batera pasahitzarekin konektatzeko, ukitu sare-izena, idatzi pasahitza, eta ukitu «Sartu».
- Sistemak ez badu detektatzen konektatu nahi duzun sarea, ukitu «Gehitu sarea eskuz». Idatzi sare-izena, hautatu segurtasun-protokoloa eta idatzi pasahitza. Ondoren, ukitu «Sartu».

Sare batera behar bezala konektatu ondoren, gailua automatikoki konektatuko da sare horretara wifi-funtzioa aktibatuta, sare hori eskuragarri badago. Ez da berriro idatzi behar sarea pasahitza.

Ez baduzu nahi sare batera automatikoki konektatzea, ukitu , eta, gero, «Kendu sarea hau».

Zure sarea automatikoki zer saretara konekta daitekeen kontsultatzeko, sakatu «Ezarpenak aurreratuak» > «Gordetako sarea».

2.2.2 Interneteko esperientzia hobetzea

«Ezarpenak» > «Wi-Fi» aukeran, zure sare-konexioaren egonkortasuna hobetu dezakezu.

- Wifiaren morroia



«Hautatu automatikoki Wi-Fi onena» aktibatzen duzunean, zure telefonoak gertuko wifi-sareen kalitatea detektatuko du, kalitate onekoa hautatu, eta hara konektatuko da.

«Hautatu automatikoki Wi-Fi onena» aukera aktibatuta edukiz gero, «Aldatu automatikoki sare mugikorrera» aukera ere aktibatu ahal izango duzu. Sistemak wifi-sareen seinalerik detektatzen ez badu eta datu mugikorrek aktibatuta baldin badaude, telefonoa sare mugikorrera aldatuko da automatikoki.

Funtzio hori aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Wi-Fi» > «Wi-Fi laguntzailea».

- Kanal bikoitzeko sarea, bizkorragoa


«Aceleración de red de doble canal» funtzioa aktibatuta badago eta wifi-sarea eta datu mugikorrek aktibatuta badaude, telefonoak etengabe aztertuko du wifi-sarearen eta datu mugikorreren seinalea, jakiteko ea nahikoa intentsitate duten, eta batetik bestera aldatuko da emaitzaren arabera. Funtzio hori aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Wi-Fi» > «Aceleración de red de doble canal».

Oharra: litekeena da zure telefonoak energia gehiago kontsumitzea «Aceleración de red de doble canal» funtzioa aktibatua duenean.



2.2.3 Aplikazioetarako sare-baimenen doikuntzak konfiguratzeko

Aplikazio bakoitzaren sare-baimenen doikuntzak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «SIM duala eta sare mugikorra» > «Wi-Fi edo sare mugikorra erabiliz». Ukitu aplikazio bat, eta hautatu erabili ditzakezun sare-motak, edo hautatu «Itxi» aplikazioak ez dezan izan baimenik wifia edo datu mugikorrek erabiltzeko.




2.3 Haririk gabeko beste konexio batzuk

2.3.1 Sare pribatu birtualak (VPN)

VPN batek sare pribatu bat sortzen du sare publiko baten barruan. VPN batekin, datuak jaso eta bidal ditzakezu sare partekatu edo publiko baten bidez, zure telefonoa zuzenean sare pribatu batera konektatuta balego bezala.

VPN bat gehitzea

Sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk» > «VPN» > «Gehitu». Idatzi beharrezkoa den informazioa, eta ukitu «Gorde».



2.3.2 Partekatzea

Zure sarea beste gailu batzuekin partekatu dezakezu, ondoren adierazten diren moduetako bat erabilita:

- **Datuak wifi bidez partekatzea**

«Wi-Fi bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatuta, gertu dauden gailuek zure telefonoa detektatu dezakete, eta telefono horretara konektatu eta zure datu mugikorren konexioa erabili. «Wi-Fi bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk» > «Wi-Fi bidezko konexio-partekatzea», eta aktibatu «Wi-Fi bidezko konexio-partekatzea».

Zoaz «Wi-Fi bidez sarea partek. Ezarp.» aukerara, «Wi-Fi bidezko konexio-partekatzea» funtzioaren izena, pasahitza eta beste doikuntza batzuk ezartzeko.

Zoaz «Konexio-kudeaketa» aukerara zerrenda beltz bat osatzeko, konektatzeko gailu-kopuru maximo bat hautatzeko eta datuen murrizketak ezartzeko.

Beste gailu batzuk zure telefonoaren wifira konektatu ahal izango dira, haien wifi-funtzioa aktibatu, zuk hautatutako izena bilatu eta pasahitza sartuta, sistemak hala eskatzen dionean.

Oharrak:

- «Wi-Fi bidezko konexio-partekatzea» funtzioa automatikoki desaktibatuko da 10 minutura, gailurik konektatzen ez bada.
- Litekeena da zure telefonoak energia eta datu gehiago kontsumitzea «Wi-Fi bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatuta dagoenean.

- **Wifi-zubia aktibatzea**

«Activar puente Wi-Fi» funtzioa aktibatuta, gertu dauden gailuek zure telefonoa detektatu dezakete, eta telefono horretara konektatu eta zure wifi-konexioa erabili. «Activar puente Wi-Fi» funtzioa aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk» > «Activar puente Wi-Fi», eta aktibatu «Activar puente Wi-Fi».

Zoaz «Ezarpenak de puente Wi-Fi» aukerara, zure sarbide-puntuaren izena, pasahitza eta beste doikuntza batzuk ezartzeko. «Beste gailu batzuetarako ikusgai» aukera desaktibatuta, eskuz gehitu ahal izango dituzu sareak sarbide-puntura konektatzeko.

Beste gailu batzuk zure telefonoaren wifi-zubira konektatu ahal izango dira, haien wifi-funtzioa aktibatu, zuk wifi-zubiari emandako izena bilatu eta pasahitza sartuta, sistemak hala eskatzen dionean.

Oharrak:

- «Activar puente Wi-Fi» funtzioa automatikoki desaktibatuko da 10 minutura, gailurik konektatzen ez bada.
- «Activar puente Wi-Fi» funtzioaren bidez, aldi berean 10 gailu konekta daitezke zure gailura.
- «Activar puente Wi-Fi» ezin da erabili OPPO Share, Wi-Fi Direct eta Pantailaren emisioa funtzioekin.
- Litekeena da zure telefonoak energia eta datu gehiago kontsumitzea «Activar puente Wi-Fi» funtzioa aktibatuta dagoenean.

- **Datuak USB bidez partekatzea**

Zure telefonoa ordenagailu batera datu-kable bidez konektatzean, «USB bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatzen da, eta, kasu horretan, ordenagailuak zure terminala ezagutu eta hartara konekta daiteke, eta haren datu mugikorren konexioa erabili. «USB bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk», eta aktibatu «USB bidezko konexio-partekatzea».

Oharra: Litekeena da zure telefonoak energia eta datu gehiago kontsumitzea «USB bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatuta dagoenean.

- **Datuak Bluetooth bidez partekatzea**

«Bluetooth bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatuta dagoela, zure telefonoarekin parekatutako gailuek zure telefonoko datu mugikorren konexioa erabil dezakete.

Gailu bat zure telefonoarekin parekatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Bluetooth», eta aktibatu bluetootha. Ondoren, hautatu parekatu nahi duzun gailua.

Oharra: Litekeena da zure telefonoak energia eta datu gehiago kontsumitzea «USB bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatuta dagoenean.



«Bluetooth bidezko konexio-partekatzea» funtzioa aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk» > «Bluetooth bidezko konexio-partekatzea». Bluetooth bidez parekatutako gailuek zure telefonoko datu mugikorren konexioa erabili ahal izango dute.

2.3.3 Near-Field Communication (NFC)

NFC funtzioa aktibatuta dagoela, telefonoak datuak truka ditzake oso gertu dauden beste gailu batzuekin. NFC aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk», eta aktibatu «NFC».

NFC aktibatutakoan, «Tocar y pagar» funtzioa erabili ahal izango duzu ordainketak egiteko, eta Android Beam erabili datuak transferitzeko.

2.3.4 Haririk gabe transferitzea

- **Wi-Fi Direct**

Wi-Fi Direct erabilita, datuak bizkor transferi ditzakezu gailu homologatuetara, haririk gabeko sare berera konektatutakoan. Wi-Fi Direct aukera aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk» > «Wi-Fi Direct».

- **Pantailaren emisioa**


«Pantailaren emisioa» funtzioa erabil dezakezu zure telefonoko pantailan ikusten duzuna TB, ordenagailu edo terminalaren wifi-sare berera konektatuta dagoen beste gailu batean proiektatzeko. Funtzio hau aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk» > «Pantailaren emisioa», eta aktibatu «Pantailaren emisioa».

- **DLNA**

DLNA funtzioa aktibatuta dagoela, telefonoak automatikoki bilatuko ditu haririk gabeko wifi-sare berera konektatuta dauden DLNA gailuak bilatzeko, eta zure terminalaren pantaila proiektatuko du detektatutako gailuaren pantailan. DLNA aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Beste hari gabeko konexio batzuk», eta aktibatu «DLNA».

2.4 Hegazkin modua

Hegazkin modua aktibatuta dagoela, bluetootha, wifia eta datu mugikorrek desaktibatuta egongo dira. Hegazkin modua aktibatzeke, hautatu metodo hauetako bat:


- Sakatu «Ezarpenak», eta aktibatu «Hegaldi modua».
 - Irristatu pantaila goitik behera kontrol-zentroan sartzeko, eta ukitu .
-

2.5 Ez molestatzea

Bilera batean, lotarakoan edo telefono-soinurik nahi ez duzunean, ez molestatzeko modua aktibatu dezakezu, deiak, mezuak eta jakinarazpenak isilarazteko. 🌙 ikonoa bistaratuko da egoera-barran. Ordu-alarmak, tenporizadoreen alarmak eta salbuespen gisa hautatzen diren alertak ez dira isilaraziko.


2.5.1 «Ez molestatu» modua aktibatzea

Sakatu «Ezarpenak» > «Ez molestatu». «Ez molestatu» funtzioa eskuz aktibatzeko, aktibatu «Gaitu eskuz». Ez molestatu modua automatikoki aktibatzeko ordu jakin bat programatzeko, ukitu «Antolatuta»



2.5.2 Salbuespenak onartzea

Kontaktu jakin batzuen jakinarazpenak, mezuak edo deiak baimendu ditzakezu.




2.6 Kontaktuak


2.6 Kontaktuak inportatzea

Kontaktuak erantsi aurretik, aukera hauek agertuko dira kontaktu-zerrendaren ordean.

- **Kontaktuak SIM txartel batetik inportatzea:** zure lehenengo telefonoaren SIM txartelean kontaktuak gordeta baldin badituzu, vCard fitxategi gisa esportatu ditzakezu, eta terminal berrian kontaktuak inportatzeko fitxategia ireki.
- **Telefonoaren biltegitik vCard fitxategiak inportatzea:** zure telefonoaren biltegian vCard fitxategi-formatuan dauden kontaktuei buruzko informazioa inportatu dezakezu.


- **Kontaktuak beste telefono batetik inportatzea:** bluetooth bidez pasatu ditzakezu telefono berrira zaharrean gordetako kontaktuak. «Klonatu telefonoa» funtzioa ere erabil dezakezu kontaktuak inportatzeko.
- **«Klonatu telefonoa» erabiltzea kontaktuak inportatzeko:** «Klonatu telefonoa» funtzioari esker, lehengo telefonoan gordetako datuak terminal berrira transferi ditzakezu. «Klonatu telefonoa» funtzioari buruzko informazio gehiago izateko, ikusi Telefonoa klonatzea atala.
- **Beste kontu batzuetako kontaktuekin sinkronizatzea:** Zure kontaktuak OPPO Cloudekin sinkronizatuta baldin badituzu, telefono berrian saioa hasi dezakezu OPPO IDa erabilita. Hodeiko zerbitzua aktibatuta, kontaktuak automatikoki sinkronizatuko dira telefono berrian. OPPOrena ez den ID bateko kontaktuak zuzenean sinkronizatzeko aukera ere baduzu.

Kontaktuak gehitu ondoren, aurreko aukeretan sartu nahi izanez gero, sakatu  botoia eskuineko goiko aldean, eta, ondoren, sakatu «Ezarpenak» > «Inportatu/Esportatu kontaktuak».





2.6.2 kontaktu berriak eskuz sortzea

- Zure lehen kontaktua gehitzeko, ukitu **+** eskuineko goiko aldean. Zure lehen kontaktua sartu ondoren, **+** eskuineko goiko aldean agertuko da.
- Idatzi kontaktuaren informazioa.
- Ukitu «Gehitu informazio gehiago» kontaktuari buruzko informazio gehiago sartzeko. **+**
- «Oharrak» aukeran, dei-tonua eta kontaktua gordetzeko tokia pertsonaliza ditzakezu, eta kontaktua talde batera gehitu.
- Kontaktuari buruzko informazio guztia sartu ondoren, sakatu «Gorde» eskuineko goiko aldean.




2.6.3 Bisita-txartelak eskaneatzea

Kontaktu bat gehitzeko haren bisita-txartela eskaneatuta, ukitu  eskuineko goiko izkinan, eta, ondoren, sakatu «Eskaneatu txartela». Telefonoak automatikoki ezagutuko du eskaneatutako txarteleko kontaktuaren informazioa, eta datuak dagozkien eremuetan sartuko ditu.

Bisita-txartelak eskaneatzeko doikuntzak aldatzeko, ukitu  eskuineko goiko izkinan, eta, ondoren, sakatu «Ezarpenak» > «Izen-txartela ezagutzea».

2.6.4 Kontaktuak kudeatzea

Ukitu  eskuineko goiko izkinan, eta, gero, «Ezarpenak». «KONTAKTUEN KUDEAKETA» aukeran, sailkatzeko modua, izena bistaratzeko modua eta doikuntza hauek aldatu ditzakezu:

Bistaratu beharreko kontaktuak: bistaratuko diren kontaktuak hautatzeko edo sisteman telefono-zenbaki bat duten kontaktuak bakarrik bistaratzeko.


Kontaktu bikoiztuak fusionatzea: izen bera duten kontaktuak automatikoki fusionatzeko.

Kontaktua kudeatzea: kontaktuak kudeatzeko pantaila behin bakarrik ukituta: izenik edo telefono-zenbakirik ez duten kontaktuak hautatzea eta ezabatzea, zenbakietatik karaktere bereziak ezabatzea edo 25 digitu baino gehiago dituzten zenbakiak ezabatzea.



2.6.5 Kontaktu bat VIP kontaktuetara gehitzea

VIP kontaktu batek deitzen duenean edo mezu bat bidaltzen duenean, zure telefonoak ez du Blokeatuko edo ez du isilaraziko funtzio hauek aktibatuta egon arren: Isilik, Ez molestatu, Ez molestatu jokatzeko ari naizen bitartean, Ez molestatu gidatzen ari naizen bitartean, Ez molestatu bizikletan nabilen bitartean edo Jazarpen-aurkakoa. Kontaktu bat VIP kontaktu gisa hautatzeko, ukitu kontaktua, eta, ondoren, sakatu «Gehitu VIP kontaktuen taldean».




2.6.6 kontaktu baten dei-erregistroa bistaratzea


«Kontaktuak» atalean, kontaktu jakin baten dei-erregistro guztiak ikus ditzakezu.

Dei-erregistroak ikustea


Sakatu «Kontaktuak», hautatu kontaktua, eta ukitu «Dei-erregistro guztiak».



2.6.7 Kontaktuak esportatzea

Zure kontaktuak beste telefono batera esportatzeko, ukitu  eskuineko goiko izkinan, eta, ondoren, sakatu «Ezarpenak» > «Inportatu/Esportatu kontaktuak» > «Esportatu biltegiratze gailura». Hautatu biltegiratzeko gailua.

2.6.8 Kontaktuak partekatzea

Kontaktuak bluetooth, testu-mezu, posta elektronikoa edo beste modu baten bidez partekatzeko, ukitu  eskuineko goiko izkinan, eta, ondoren, sakatu «Ezarpenak» > «Inportatu/Esportatu kontaktuak» > «Bidali kontaktuak».


2.6.9 Nire taldeak

Taldeak sor ditzakezu kide guztiekin aldi berean harremanetan jartzeko. Talde bat sortu edo aldatzeko, ukitu «Nire taldeak» kontaktu-zerrendaren goiko aldean.

Talde berri bat sortzea

Talde berri bat sortzeko, ukitu «Talde berria».

«Nire taldeak» aukerako talde bat aldatzeko, ukitu taldearen izena.

- Ukitu  eskuineko goiko izkinan, kide berriak gehitzeko.
- Ukitu «Hautatu», hautatu ezabatu beharreko kidea, eta, ondoren, hautatu «Kendu».
- Ukitu «Mezua» edo «Helbide elek...» SMS bat edo mezu elektronikoa bat talde bateko kide guztiei edo batzuei bidaltzeko.
- Ukitu «Aldatu izena» talde baten izena aldatzeko.
- Ukitu «Dei-tonua» taldeko kontaktuen deiak jasotzen direnean joko duen tonua ezartzeko.

VIP kontaktuak

Ukitu «Kontaktuak VIP» taldean dauden kontaktuak ikusteko. VIP kontaktuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi *Kontaktu bat VIP kontaktuetara gehitzea*.

Talde adimendunak

«TALDE ADIMENDUNA» aukeran, ukitu «Konpainia» kontaktu bakoitzaren zehaztapenetan jarritako enpresaren arabera automatikoki sortutako kontaktu-taldeak ikusteko.


3. Oinarrizko kontzeptuak

3.1 Telefonoa aktibatzea

Telefonoa aktibatzeko bi modu daude:

3.1.1 Pizteko botoia

Sakatu pizteko botoia telefonoa aktibatzeko (eskuineko aldean dago).



3.1.2 Gailua altxatzea pantaila pizteko

«Altxatu pantaila pizteko» funtzioa aktibatuz gero, telefonoa automatikoki aktibatuko da begiratzeko altxatzen duzunean.

«Altxatu pantaila pizteko» funtzioa aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Laguntza egokia» > «Keinua eta mugimendua», eta aktibatu «Altxatu pantaila pizteko».

3.2 Telefonoa desblokeatzea

Zure telefonoa desblokeatu dezakezu pasahitz bat, hatz-marka bat edo aurpegiaren ezagutzeko modua erabilita. Aldi berean telefonoa desblokeatzeko modu bat baino gehiago aktiba ditzakezu.

3.2.1 Pasahitza

Telefonoa desblokeatzeko 6 zifrako zenbaki-kode bat ezar dezakezu. Telefonoa aktibatutakoan, irristatu hatza gora eta sakatu kodea.

Pasahitza ezartzeko edo aldatzeko, zoaz «Ezarpenak» > «Hatz-marka, aurpegia eta ezkutuko kod.» > «Desblokeatutako pantailaren pasahitza» aukerara.

Okerreko pasahitza sartuz gero, «Pasahitza ahaztu zait» ukitu dezakezu, eta berrezartzeko aukera hauetako bat erabili:


- Segurtasuneko helbide elektronikoko bat: pasahitza sortzeko garaian segurtasuneko helbide elektronikoko bat sartu bada, helbide hori sar dezakezu egiaztatze-kodea jasotzeko.
- Hatz-marka: pasahitza sortzean hatz-marka erantsi baduzu, hura erabil dezakezu pasahitza berrezartzeko.



3.2.2 Hatz-marka

Telefonoa desblokeatzeko, zure hatz-marka ere erabil dezakezu. Gehienez bost hatz-marka erants daitezke.

Sakatu «Ezarpenak» > «Hatz-marka, aurpegia eta ezkutuko kod.» > «Hatz-marka» > «Gehitu hatz-marka». Segi jarraibideei hatz-marka gehitzeko.



3.2.3 Aurpegia

Telefonoa 0,08 segundoan desblokeatzeko, aurpegia erabil dezakezu.

Zure aurpegia erregistratzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Hatz-marka, aurpegia eta ezkutuko kod.» > «Aurpegia» > «Erregistratu aurpegia». Sistemak blokeo-pantailaren kode bat sartzeko eskatuko dizu aurpegia erregistratu aurretik. Gero, segitu pantailan agertuko diren jarraibideei zure aurpegia erregistratzeko.



«DESBLOKEATU:» aukeran, aurpegia bi modutara erabil dezakezu zure telefonoa desblokeatzeko:

- «Irristatu gora pantaila piztuta dagoenean» hautatzen baduzu, ekintza hori hatzarekin egin beharko duzu pantaila piztuta dagoela, eta telefonoa aurpegiaren aurrean eduki.
- «Zuzenean zure aurpegiarekin» hautatzen baduzu, zure aurpegiak automatikoki desBlokeatuko du telefonoa pantaila piztuta dagoenean, eta terminala aurpegiaren aurrean duzunean.

Oharrak:


- Zure telefonoa aurpegiarekin azkarrago eta errazago desblokeatzeko, aktibatu «Altxatu pantaila pizteko» funtzioa. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi *Gailua altxatzea pantaila pizteko* atala.
 - Segurtasuna hobetzeko, eragotzi dezakezu telefonoa aurpegiarekin desblokeatzeko aukera begiak itxita dituzunean. Funtzio hori aktibatzeko, aktibatu «Begiak itxiz gero ezingo da aurpegia ezagutu» aukera.
-

3.3 Doikuntzetan bilatzea

Doikuntza bat bilatzeko, sakatu «Ezarpenak», eta ukitu 🔍 eskuineko goiko izkinan.

Idatzi bilaketako gako-hitza, eta ukitu emaitza, dagokion doikuntzaren pantailara joateko.


Adibidez, «Bluetooth» bilatuta, bluetoothari dagozkion doikuntza guztiak ikusiko dituzu.




3.4 Soinu- eta bibrazio-ezarpenak konfiguratzea


Bolumena igo eta jaisteaz gain, soinuak eta bolumen-maila pertsonaliza ditzakezu helburu bakoitzerako.


3.4.1 Bolumena doitzea

Multimedia-fitxategiak entzuteko bolumena doitzeko, sakatu bolumena igotzeko eta jaisteko botoiak telefonoaren alde batean. Telefonoaren pantaila desblokeatuta baldin badago, bolumen-botoia sakatzean barra bat bistaratuko da albo batean. Ukitu  multimedia-fitxategia isilarazteko edo aktibatzeke, eta irristatu gora edo behera barra bolumena doitzeko.

Txirrinaren bolumena isilarazteko edo aktibatzeke (sarrerako deiak, mezuak eta beste jakinarazpen-soinu batzuk barne hartzen ditu), ukitu  alboko barra.




Ukitu  alboko barra multimedia-fitxategien, txirrinaren eta alarmen bolumen-barrak ikusteko. Ukitu barra bateko behealdeko ikonoa soinua isilarazteko edo aktibatzeke, eta irristatu gora edo behera bakoitzari dagokion bolumena doitzeko. Adibidez, lotara joan aurretik, bolumen-txirrina isilaraz dezakezu eta alarma aktibatuta utzi.



3.4.2 Soinu guztiak isilaraztea

Soinu guztiak pauso bakar batean isilarazteko, irristatu hatza behera pantailaren goiko aldetik eta ukitu «Isilik».



3.4.3 Dei-tonuak eta jakinarazpen-soinuak pertsonalizatzea

Dei-tonu eta jakinarazpen-soinu desberdinak aukeratu ditzakezu sarrerako deiak, mezuak eta egutegiko jakinarazpenak identifikatzeko. Dei-tonu eta jakinarazpen-soinu gehiago ere erants ditzakezu, telefonora inportatuta edo online deskargatuta.

Dei-tonuak eta jakinarazpen-soinuak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Soinuak eta bibrazioa».


3.4.4 Bibrazio-ezarpenak pertsonalizatzea

Dei- eta jakinarazpen-tonuen eta sistemaren erantzunen tonuen doikuntzak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Soinuak eta bibrazioa».

3.4.5 Dolby Atmos

Dolby Atmos soinu inguratzailaren simulagailua aktibatuta dago lehenespenez. Entzungailuak konektatzean, desaktibatu egin daiteke.

Dolby Atmos funtzioa desaktibatuzko edo beste Dolby Atmos modu batera aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Soinuak eta bibrazioa» > «Dolby Atmos».



3.5 Pantaila eta distira

Hobeto eta erosoago ikusteko, pantailaren distira eta beste ikuspen-doikuntza batzuk konfiguratu ditzakezu.

3.5.1 Pantailaren distira doitzea

Pantailaren distira eskuz doitzea


Pantailaren distira eskuz doitzeko bi modu daude:

- Irristatu beheara pantailaren goiko aldean, eta irristatu distiraren kontrol irristagarria.
- Sakatu «Ezarpenak» > «Pantaila eta distira» eta irristatu distiraren kontrol irristagarria.




Pantailaren distira automatikoki doitzea

Distira automatikoaren modua aktibatzen baduzu, pantailaren distira automatikoki doituko da uneko argi-baldintzen arabera, integratuta duen argi-sentsoreari esker. Modu horrek laguntzen du begietako nekea prebenitzen eta energia aurrezten. Modu hori aktibatzeko bi modu daude:

- Irristatu beherantz pantailaren goiko aldetik, eta ukitu  distiraren kontrol irristagarriaren ondoan.
- Sakatu «Ezarpenak» > «Pantaila eta distira», eta aktibatu «Distira automatikoa».


3.5.2 Pantailaren kolore-tenperatura doitzea

Pantailaren kolore-tenperatura doitzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Pantaila eta distira» eta irristatu kontrol irristagarria nahi duzun doikuntzaraino.




3.5.3 Gaueko babes

Gaueko babesaren moduak pantailak igortzen duen argi urdina murrizten du begien nekea arintzeko. Gaueko babesaren modua aktibatzeko edo haren doikuntzak aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Pantaila eta distira» > «Gaueko babes».




3.5.4 Letra-tamaina aldatzea

Testuaren tamaina aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Pantaila eta distira» > «Letraren tamaina». Irristatu pantailaren beheko aldeko kontrol irristagarria nahi duzun letra-tamainara arte.




3.5.5 Pantaila automatikoki desaktibatzea

Lehenespenez, zure gailua automatikoki Blokeatuko da 30 segundoz pantaila ukitzen ez bada edo eragiketarik egiten ez bada. Denbora-tarte hori aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Pantaila eta distira» > «Itzali pantaila automatikoki».




3.5.6 Automatikoki biratzea

«Auto Rotate» funtzioa aktibatzen baduzu, pantailak automatikoki aldatuko du orientazioa –horizontaletik bertikalera, eta alderantziz– telefonoari bira ematean. Modu hori aktibatzeko bi modu daude:

- Irristatu behera pantailaren goiko aldean, eta ukitu .
- Sakatu «Ezarpenak» > «Pantaila eta distira», eta aktibatu «Auto Rotate».

3.5.7 Pantaila osoan bistaratzea

Aplikazio batzuetan, pantailaren ikuspegia zabaldu egin dezakezu mihiraino. Aplikazio jakin baterako «Pantaila osoko bistaratzea» funtzioa aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Pantaila eta distira» > «Pantaila osoko bistaratzea», ukitu aplikazio bat, eta aktibatu «Eremuaren bistaratze konkaboa».



3.6 Kontrol adimendunak

Zenbait funtzio adimendun aktiba eta pertsonaliza ditzakezu, telefonoa errazago erabiltzeko.


3.6.1 Lasterbidea Googleren morroira

Googleren morroia aktibatzeko lasterbidea aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Laguntza egokia», eta aktibatu «Eduki sakatuta 0,5 s pizteko botoia, Google Laguntzailea esnatzeko». Funtzio hori aktibatuta dagoenean, pizteko botoia 0,5 segundoz sakatuz gero, Googleren morroia aktibatzen da. Pizteko botoiaren gainerako funtzioak ez dira aldatuko.

3.6.2 Nabigazio-teklak

Zure telefonoan erosi mugitu zaitezke hiru nabigazio-keinu mota erabilia: Bi alboetatik eta gorantz eta tekla birtualetarantz irristatzeko keinuak. Tekla birtualak pantailaren beheko aldean agertzen diren nabigazio-teklak dira.

Aukeran dauden nabigazio-keinu guztien erakustaldiak ikusteko, sakatu «Ezarpenak» > «Laguntza egokia» > «Nabigazio-teklak». Sarritan ustekabean egiten badituzu bi alboetara irristatzeko keinuak eta pantaila osoan horizontalean gora irristatzeko keinua, «Okerreko ukituak prebenitzea» funtzioa aktiba dezakezu



3.6.3 Keinuak pantaila itzalita dagoela


Pantaila itzalita dagoela erabil daitezkeen keinuak

Pantaila itzalita dagoela, keinu pertsonalizatuak erabil ditzakezu eragiketak bizkor egiteko.

«Itzalitako pantailako keinuak» aukera aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Laguntza egokia» > «Keinua eta mugimendua» > «Itzalitako pantailako keinuak», eta aktibatu «Itzalitako pantailako keinuak».

Pantaila itzalita dagoela erabil daitezkeen keinuak eranstea

«ITZALITAKO PANTAILAKO KEINU GEHIAGO» aukeran, beste keinu batzuk ere erants ditzakezu pantaila itzalita dagoela. Adibidez, gorantz irristatzea hauta dezakezu keinu gisa, pantaila itzalita dagoela kalkulagailua irekitzeko.



3.6.4 Dei adimenduna

Telefono-deien funtzio adimendunak aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Laguntza egokia» > «Keinua eta mugimendua» > «Dei adimenduna».

3.7 Alboko barra adimenduna

Alboko barra adimendunari esker, aplikazio batetik bestera alda zaitezke, fitxategiak transferi ditzakezu, mezuei erantzun diezaiekezu edo pantaila-argazkiak atera ditzakezu jokutzen ari zarenean edo bideo bat ikusten ari zarenean.


Alboko barra adimenduna aktibatu eta pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Laguntza egokia» > «Alboko barra adimenduna», eta aktibatu «Alboko barra adimenduna».

Alboko barra adimenduna aktibatzean, barra bertikal zuri bat bistaratuko da pantailaren eskuinean. Irristatu ezkerrera, eta Alboko barra adimenduna bistaratuko da.



3.7.1 Fitxategi-kontsola

Sakatu «Fitxategi-kontsola» Alboko barran, azken argazkiak ikusteko, eta partekatzeko hautatzeko.




3.7.2 Tresna bizkorrak alboko barra adimendunean

- Pantaila-argazkia: zure pantailaren argazki izoztu bat ateratzeko. Pantaila-argazkiak karpetan gordetzen dira «Argazkiak» aukeran.
- Pantaila grabatzea: pantailaren bideoa grabatzen du. Grabazioa eteteko, ukitu grabazio-botoia. Informazio gehiago lortzeko, ikusi *Pantaila grabatzea*.
- Jakinarazpenik gabe: jakinarazpen guztiak desaktibatzen ditu.

3.7.3 Aplikazio bizkorak

Alboko barra adimenduna erabil dezakezu aplikazio espezifikoak bizkor irekitzeko. Mezuen aplikazioa aplikazio higikor gisa ireki daiteke beste aplikazio baten gainean. Adibidez, bideo bat ikustean, «Mezuak» Alboko barra adimendunean hauta dezakezu mezu bat bidaltzeko bideoaren erreprodukzioa eten gabe.



3.8 Pantaila-argazkia

Pantaila-argazkiak zure pantailaren argazki izoztu bat ateratzen du. Pantaila-argazkiak «Screenshots» karpetan gordetzen dira «Argazkiak» aukeran. Pantaila-argazkiak parteka ditzakezu hauetako moduren bat hautatuta:

- Pantaila-argazkiaren botoia: luze sakatu pizteko eta bolumena jaisteko botoiak.
- Pantaila-argazkia 3 hatzekin: «3 hartzeko pantaila-argazkia» aukera aktibatuta, hiru hatz behera irristatuta pantaila-argazkia atera dezakezu. Funtzio hori aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Laguntza egokia» > «Keinua eta mugimendua», eta aktibatu «3 hartzeko pantaila-argazkia».
- Pantaila-argazkia Alboko barra adimendunarekin: Alboko barra adimenduna aktibatuta, irristatu barra kanpoko aldera, eta ukitu «Screenshots» argazkia ateratzeko. Alboko barra adimendunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi *Alboko barra adimenduna*.
- Pantaila-argazki zabaldua: pantaila-argazki bat atera ondoren, ukitu «Screenshots ampliado» eta segi jarraibideei pantaila-argazki zabaldua ateratzeko.

Pantaila-argazkia egiteko, ukitu «Editatu» aldatzeko. Pantaila-argazkia moztu egin dezakezu, bira eman, iragazkiak eta testua gehitu, eta abar. Pantaila-argazkia partekatzeko, ukitu «Bidali».

3.9 Aplikazioak pantaila zatituan


“Aplikazioaren zatitutako pantaila” moduan, zure pantaila bi marko independentetan zatituko da, eta bakoitzean eduki desberdinak bistaratuko dira aldi berean. Adibidez, marko batean film bat ikus dezakezu, eta bestean lagunen argazkiak, aldi berean.

“Aplikazioaren zatitutako pantaila” modua erabiltzeko, dagozkion doikuntzak aldatzeko eta hari buruzko adibideak ikusteko, sakatu «Ezarpenak» > «Aplikazioaren zatitutako pantaila».




3.9.1 Aplikazioen markoen tamaina doitzea


«Aplikazioaren zatitutako pantaila» modua aktibatu ondoren, bi aplikazioen arteko lerro banatzailea mugitu dezakezu, aplikazio bakoitzak pantaila hartuko duen zatia doitzeko.



3.9.2 Aplikazioen kokapenak trukatzea


Bi aplikazioen kokapenak trukatzeko, ukitu lerro banatzailea, eta, ondoren .

3.9.3 Aplikazioak aldatzea

«Aplikazioaren zatitutako pantaila» funtzioan aplikazioak aldatu nahi badituzu, ukitu lerro banatzailea, eta, ondoren, .

3.9.4 Aplikazioak pantaila zatituan modutik irtetea

Hiru modutara atera zaitezke aplikazioak pantaila zatituan ikusteko modutik:

- Itzuli pantaila nagusira eta ukitu «Irten zatitutako pant.» botoia, pantailaren eskuineko goiko aldean.
- Arrastatu lerro banatzailea goraino, goiko zatian dagoen aplikaziotik ateratzeko, edo arrastatu lerro banatzailea beheko aldera beheko zatian dagoen aplikaziotik ateratzeko.
- Ukitu lerro banatzailea, eta, ondoren, .

3.10 Aplikazioak bikoiztea

Aplikazio bat bikoizteko funtzioa aktibatzean, haren kopia bat sortzen da pantaila nagusian. Jatorrizko aplikazioa eta haren kopia aldi berean exekuta daitezke, batak besteari eragin gabe. Aplikazio bat bikoizteko, sakatu «Ezarpenak» > «Aplikazio-klonatzaila».

Aplikazioak bikoizteko funtzioa bakarrik erabil daiteke aplikazioak berak eta telefonoak onartzen badute. Bikoiztutako aplikazio bat ondo ez badabil, horrek esan nahi du aplikazio hori, terminala edo biak ez direla bateragarriak funtzio honekin.

Aplikazioak bikoizteko funtzioak ez du datu-transferentziarik onartzen bikoiztutako aplikazioaren eta ordenagailuaren artean. Gehienez, aplikazioen bi bikoizketa egon daitezke aldi berean.

Hona hemen funtzio hau onartzen duten aplikazioak:

- BBM
- WhatsApp Messenger
- Messenger
- Hike News & Content
- Facebook
- imo
- Instagram
- Skype
- Telegram
- Viber Messenger
- Zalo
- WeChat



3.11 Energia aurrezteko moduak

Zure telefonoak energia-eraginkortasuna maximizatu dezake hainbat funtzio eta modu erabilita.

3.11.1 Energia aurreztea

Energia-kontsumoko arazoak detektatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Bateria» > «Aurreztu bateria». Energia-kontsumoa optimizatzeko eta bateriaren iraupena luzatzeko, ukitu «Luzatu bateriaren iraupena».

3.11.2 Bateriaren kontsumoaren babes adimenduna

Bateriaren kontsumoaren babes adimendunaren moduan, sistemak aplikazioen exekuzio-egoera identifikatzen du, eta energia onartzeko neurriak hartuko ditu, bigarren mailan ari diren aplikazioen funtzionamendua bermatzeko.

« Bateria-aurrezle adimenduna « aukera aktibatzea gomendatzen da energia-kontsumoa murrizteko eta bateriaren iraupena luzatzeko. Modu hori aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Bateria» > «Bateria-aurrezle adimenduna».

3.11.3 Energia-erabilera

Energia-kontsumoaren xehetasunak ikusteko, sakatu «Ezarpenak» > «Bateria» > «Bateriaren erabilera». Aplikazio bakoitzaren energia-kontsumoa eta telefonoak guztira gaur, atzo eta herenegun kontsumitutako energia-portzentajea ikus dezakezu. Ukitu aplikazio bat lehen eta bigarren planoan jardundako denbora ikusteko, eta kontsumitu duten energia-kantitatea ikusteko.

3.11.4 Optimizazioa atsedean moduan

«Lotako egonean optimizazioa» funtzioa aktibatu baduzu, zure telefonoak detektatu dezake noiz egon zaitezkeen lo, eta kontsumo baxuko modura aldatu, energia-eraginkortasuna hobetzeko. Sakatu «Ezarpenak» > «Bateria» > «Bateria-aurrezlearen aukerak» > «Lotako egonean optimizazioa».

3.11.5 Errendimendu handiko modua

Errendimendu handiko moduan zure telefonoan doikuntza batzuk optimizatuko dira, goi-mailako prestazioak izan ditzazun. Modu honekin energia-kontsumoa handitu egingo da. Modu hori aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Bateria», eta aktibatu «Errendimendu handiko modua».



3.12 Kontrol-zentroa


Kontrol-zentroari esker, berehala sartu zaitezke sarrien erabiltzen dituzun funtzioetara (hala nola kalkulagailua, kamera, linterna), eta azken jakinarazpenak ikus ditzakezu keinu bakarra edo bi keinu eginda.

3.12.1 Kontrol-zentroaren erabilera

Zure telefonoa desblokeatuta edo desblokeatuta egonda ere, hatza pantailaren goiko aldetik behera irristatu dezakezu kontrol-zentrorra sartzeko. Luze sakatu ikonoa hari dagokion funtzioaren doikuntzak irekitzeko.

3.12.2 Ikonoak aldatu edo berrantolatzea

Funtzioak eskuz gehitu ditzakezu kontrol-zentroaren jakinarazpen-barran, horietara

errazago sartzeko. Irristatu beherantz kontrol-zentroan sartzeko, eta, ondoren, ukitu  eskuineko goiko aldean. Luze sakatu ikonoa eta arrastatu jakinarazpen-barra.




3.13 Jakinarazpen-zentroa


Jakinarazpenak pertsonaliza ditzakezu zuretzat garrantzitsuena dena bakarrik ikus dezazun. Lehen aldiz beherantz irristatzean kontrol-zentroa irekitzeko, azken jakinarazpenak ikusiko dituzu jakinarazpen-zentroan. Zaharrenak ikusteko, sakatu «Jakinarazpen-zentroa», eta irristatu gorantz.

Oharra: telefonoa desblokeatuta dagoela sartzen bazara kontrol-zentroan, jakinarazpen-zentroa ez da bistaratuko.

3.13.1 Jakinarazpenak atzeratzea


Jakinarazpen bat atzeratzeko, jarri haren gainean, irristatu ezkerrerantz, eta ukitu .

Hautatu handik zenbat denborara bistaratzea nahi duzun berriro.




3.13.2 Jakinarazpenak ezabatzea


Jakinarazpenak ezabatzeko bi era daude:


- Jakinarazpena eskuinera irristatuta.
- Jakinarazpena ezkerrera irristatuta eta  sakatuta.


Jakinarazpen guztiak ezabatzeko, sakatu  jakinarazpen-zentroaren eskuineko goiko izkinan.



3.13.3 Jakinarazpenen lehenetsunak konfiguratzea

Irristatu ezkerrera jakinarazpenak kudeatzeko. Ukitu  jakinarazpen-mota jakin baten lehenetsunak ezartzeko.

Jakinarazpen-mota bat ez garrantzitsutzat jotzeko, aktibatu «Garrantzitsuak ez diren jakinarazpenak». Jakinarazpen-zentroan jakinarazpen ez garrantzitsuak ikusteko, ukitu  «Jakinarazpen-zentroa» aukeraren eskuinean.




Aplikazio jakin baten jakinarazpenak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Jakinarazpen-eta egoera-barra» > «Kudeatu jakinapazpenak».

3.14 Egoera-barra

Egoera-barran bistaratuko dira egoera-ikonoak; ordua, telefonia-operadorea, haririk gabeko konexioa, bateriaren egoera eta beste modu aktibo batzuk bistaratzen dira. Egoera-barra pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Jakinarazpen-eta egoera-barra» eta «EGOERA BARRA» aukerako parametroen doikuntzak.

- Egoera-barran, geratzen den bateriaren portzentajea bistartzeko bateria-mailaren ikonoaren ondoan, aktibatu «Bateriaren ehunekoa».
- Egoera-barran sarearen abiadura denbora errealean bistartzeko, aktibatu «Erakutsi sarearen abiadura».



3.15 Aplikazioetarako lasterbideak

Aplikazioetarako lasterbideen bidez, zuzenean aplikazio baten funtzio batera sar zaitezke, hura ireki beharrik gabe.

Aplikazioen lasterbide bidez, aplikazio bateko funtzio batera sartzeko, luze sakatu aplikazio baten ikonoa, haren lasterbide-mezua bistaratu arte, eta ukitu erabili nahi duzun funtzioa. Aplikazioa funtzio horretan irekiko da zuzenean. Adibidez, kameraren ikonoa luze sakatuta, zuzenean erretratuak ateratzeko aukerara, edertasun-selfira, bideo-grabaziora edo aplikazioaren informazio-orrira sar zaitezke.

Aplikazio baten lasterbide-ikonoa sortzeko beste modu bat: luze sakatu lasterbideen menuan elementua, eta irristatu pantaila nagusira.



3.16 Teklatua eta idazteko metodoa

Funtzio ugari dituzu eskura telefonoan testua idazteko; testua hobeto eta azkarrago idazten lagunduko dizute.

3.16.1 Idazteko teklatu lehenetsia

Gboard teklatua duzu zure telefonoan, baina beste teklatu batzuk deskarga eta instala ditzakezu Play Storetik. Zure teklatu lehenetsia aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Teklatua eta idazteko metodoa» > «Teklatu lehenetsia».

3.16.2 Teklatu segurua

Zure datuen pribatutasuna zaintzeko, teklatu segurua aktibatu dezakezu (automatikoki gaitzen da pasahitzak idazten dituzunean). Funtzio hori aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Teklatua eta idazteko metodoa», eta aktibatu «Erabili teklatu segurua pasahitza sartzerakoan».

3.16.3 Teklatu bat irekitzea


Ukitu testua idazteko edozein gune teklatu lehenetsia zabaltzeko.

3.16.4 Teklatuaren doikuntzak pertsonalizatzea


Teklatuaren doikuntzak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Teklatua eta idazteko metodoa» eta ukitu teklatu bat «TEKLATU ERABILGARRIAK» aukeran.


3.16.5 Gboard teklatua erabiltzea

- **Zenbakiak eta karaktere bereziak idaztea**

Zenbakiak eta karaktere berezien teklatua erabiltzeko, ukitu  teklatu nagusiaren ezkerreko beheko izkinan.


- **Emojiak eta stickerrak eranstea**

Emojien eta stickerren teklatua erabiltzeko, ukitu  teklatuaren beheko izkinan. Emoji eta sticker gehiago deskarga ditzakezu.



- **Ahotsa erabilia idaztea**

Mikrofono integratua erabil dezakezu testua ahotsarekin idazteko, eskuz idatzi beharrean. Funtzio hau aktibatzeko, ukitu  teklatuaren goiko eskuineko izkinan.



3.16.6 Atalak automatikoki betetzeko aplikazioak

Atalak automatikoki betetzeko aplikazioek inprimakiak automatikoki betetzen lagun dezakete, lehenik sartutako informazioan oinarrituta. Atalak automatikoki betetzeko Googleren zerbitzua duzu zure telefonoan, baina beste batzuk deskarga eta instala ditzakezu Play Storetik. Automatikoki betetzeko aplikazioa desaktibatze edo aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Teklatua eta idazteko metodoa» > «Automatikoki betetzeko zerbitzua».

3.17 OPPO Share

OPPO Share-rekin, OPPO gailuen artean fitxategiak bizkor bidali ditzakezu.


OPPO Share erabiltzea:

- Irriatu hatza pantailaren goiko aldetik beherantz, kontrol-zentroa irekitzeko, eta ukitu «OPPO Share» funtzioa aktibatzeko.
- Hautatu fitxategi bat partekatzeko, eta ukitu «Bidali». OPPO Share funtzioa aktibatuta detektatu dituen gailu guztiak erakutsiko dira.
- Ukitu fitxategia bidali nahi diozun telefonoaren ikonoa.

- Ukitu «Ados» telefono hartzailean, eta fitxategia bidali egingo da.

Oharrak:

- Terminal igorleek eta hartzaileek wifi-sare berera konektatutako OPPO telefonoak izan behar dute.
- OPPO Share automatikoki deskonektatuko da 5 minutuan erabiltzen ez bada.




3.18 Doikuntzak, fitxategiak eta informazioa bilatzea

Zure telefonoak bilaketa-motor integratu ahaltzua du, eta, horri esker, doikuntzak, fitxategiak eta informazioa bila ditzakezu hitzak idatzita.

Telefonoan bilaketak egiteko bi modu daude:

- Irristatu beherantz hatza pantaila nagusiaren edozein lekutan, pantailaren goiko aldean izan ezik.
- Irristatu pantaila nagusian eskuinerantz, morroi adimendunaren orrira joateko.



3.19 Irisgarritasuna

Telefonoak irisgarritasun-funtzio batzuk ditu, ikusmen urritasuna edo mugitzeko desgaitasuna duten pertsonen telefonoa erabiltzeko erraztasunak emateko.

3.19.1 TalkBack

TalkBack-ek ahozko interakzioa eskaintzen du, zure gailua erabil dezazun pantaila ikusi beharrik gabe.

TalkBack funtzioa aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «TalkBack», eta aktibatu TalkBack. TalkBack aktibatzen duzun lehen aldian, funtzioaren tutorial bat bistaratuko da. Doikuntzen menuaren bidez ere sartu ahal izango zara tutorial horretara.

TalkBack-en doikuntzak pertsonalizatzea

TalkBacken doikuntzak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «TalkBack» > «Ezarpenak».

TalkBack desaktibatzea

- Ukitu TalkBack etengailua. Berdez nabarmenduko da. Ukitu bitan etengailua.
- Berrespen-mezuan, ukitu «Desaktibatuta». Berdez nabarmenduko da. Ondoren, ukitu bitan «Desaktibatuta».



3.19.2 Irisgarritasun-menua

Irisgarritasun-menuan ikono ugari daude, erraz sakatzeko modukoak, irisgarritasun-doikuntza arruntetarako.

Irisgarritasun-menua aktibatzea

Sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Erabilerraztasun-menua», eta aktibatu «Erabilerraztasun-menua».

Irisgarritasun-menua irekitzea

Irisgarritasun-menua irekitzeko, ukitu  pantailaren beheko eskuineko izkinan. «Erabilerraztasun-menua» funtzioa ere erabilgarri badago, luze sakatu  irisgarritasun-menuaren eta hautaketa esateko funtzioaren artean txandakatzeko.

Irisgarritasun-menuaren doikuntzak pertsonalizatzea

Irisgarritasun-menuaren doikuntzak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Erabilerraztasun-menua» > «Ezarpenak».



3.19.3 Hautaketa esatea

Hautaketa ozen esateko funtzioa aktibatuta, pantailan elementu bat ukitu, eta telefonoak ozen deskribatuko du.

Hautatutakoa esateko funtzioa aktibatzea

Sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Erabilerraztasun-menua», eta aktibatu «Erabilerraztasun-menua».

Hautaketa esateko funtzioa irekitzea

Ukitu  pantailaren eskuineko beheko izkinan. Irisgarritasun-menua ere aktibatuta badago, luze sakatu , hautaketa esateko funtzioaren eta irisgarritasun-menuaren artean txandakatzeko.

Hautatutakoa esateko funtzioa erabiltzea

Lehenik, ukitu ikono bat. Ondoren, hau egin dezakezu:

- Elementu jakin bat ukitu (testua edo irudia).
- Hatza pantailan irristatu zenbait elementu hautatzeko.
- Erreproduktzio-botoia ukitu, pantailan agertzen den guztia entzuteko.
- Kameraren ikuspegian agertzen den testua hautatu.

Hautaketa ozen esateko funtzioaren doikuntzak pertsonalizatzea

Sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Erabilerraztasun-menua» > «Ezarpenak».

3.19.4 Irisgarritasuna, etengailuen bidez

‘Etengailuen bidezko irisgarritasuna’ funtzioaren bidez, etengailu bat edo gehiago konekta ditzakezu, elementuak hautatzeko, mugitzeko, testua idazteko eta abar.

Etengailuen bidezko irisgarritasun funtzioa aktibatzea

Sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Erabilerraztasun-osagarria».

‘Etengailuen bidezko irisgarritasuna’ funtzioaren doikuntzak pertsonalizatzea

Sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Erabilerraztasun-osagarria» > «Ezarpenak».

3.19.5 Ahots-sintesia (TTS)

TTS funtzioaren doikuntzak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Testutik hizketarako irteera»

3.19.6 Irisgarritasuneko lasterbideak

Irisgarritasuneko lasterbideen funtzioa aktibatuta, sakatu 3 segundoz bi bolumen-teklak irisgarritasun-funtzio jakin bat aktibatzeko.

Irisgarritasuneko lasterbideen funtzioa aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Oztoporik gabeko eragiketa bizkorra», eta aktibatu «Oztoporik gabeko eragiketa bizkorra». Aukeratu zer irisgarritasun-funtziori aplikatu nahi diozun lasterbidea.

3.19.7 Azp tituluak

Bideoetan azp tituluak aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Oztoporik gabea» > «Azp tituluak», eta aktibatu «Gaitu zerbitzua».

3.20 Biltegitratzeko lekua egiaztatzea eta lekua egitea

Erabilitako eta erabilgarri dagoen biltegitratze-tokia ikusteko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Biltegitratzea».



Biltegia garbitzea

Biltegia garbitzeko funtzioak telefonoan tokia egiten lagundu diezazuke, beharrezkoak ez diren fitxategiak, cookieak eta cache-fitxategiak detektatuz eta ezabatuz. Funtzio hori erabiltzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Biltegitratzea» > «Garbitu Biltegitratzea». Beharrezkotzat jotzen ez diren datu guztiak ezabatzeko, ukitu «Garbitu guztiak». Ekintza hau ezin da desegin.

Kategorien arabera garbitzea

«KATEGORIZATUTAKO FITXATEGIAK» atalean, elementu bat ukitu dezakezu, fitxategi-mota jakin batzuei buruzko biltegitratze-informazioa ikusteko eta, behar izanez gero, erraz ezabatzeko. «Argazki garbitzailea» atalean, pantaila-argazkiak, antzeko argazkiak, argazki lausoak eta segur aski beharrezkoak ez diren beste argazki-mota batzuk detektatzen ditu.



3.21 Telefonoaren segurtasun-kopiak egitea

Telefonoa galdu edo hondatuz gero, zure datuak ez galtzeko, gomendatzen dizugu aldizka zure terminalaren segurtasun-kopiak egitea.

3.21.1 Segurtasun-kopia bat egitea

Sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Egin babeskopia eta berrezarri» > «Egin babeskopia eta leheneratu», eta ukitu «Sortu babeskopia berria». Hautatu segurtasun-kopian sartu nahi dituzun datuak, eta, ondoren, ukitu «Hasi babeskopia».

Hautatutako datuen segurtasun-kopia bat egingo da telefonoan, «Babeskopiak» izeneko karpetan. Segurtasun-kopiak egiteko prozesuak denbora pixka bat beharko du. Denbora-tarte horretan, ez itzali edo berrabiarazi telefonoa.




Oharra: berrezarri zure segurtasun-kopiaren datuak beste gailu batean, zure telefonoan fabrikako datuak berrezarri edo eguneratu aurretik.

3.21.2 Zure ordenagailuan datuak leheneratzea

Erabili USB kablea zure telefonoa ordenagailu batera konektatzeko. Ukitu telefonoan «Trasferir archivos». Ordenagailuan, ireki telefonoan «Memoria interna» karpeta. Ireki «Babeskopia» karpeta eta itsatsi ordenagailuan segurtasun-kopia berriena.


3.22 Telefonoa kargatzea

Terminalaren goiko aldean dagoen egoera-barran, geratzen den bateria ikus dezakezu. Zure telefonoaren bateria-karga baxua denean, kargatu USB-C kable bat eta USB transformadore bat korrante-hartune estandar batera edo kargagailu eramangarri batera konektatuta.





3.23 Telefonoa berrabiaraztea

Zure telefonoa behar bezala ez badabil, berrabiarazi. Lagungarria da batzuetan. Telefonoa berrabiarazteko bi modu daude:

- Sakatu 3 segundoz eteteko/aktibatze botoia, eta, ondoren, irristatu zirkulu zuria  aukerara.
- Sakatu gutxienez 10 segundoz pizteko botoia eta bolumena igotzeko botoia aldi berean.

3.24 Telefonoa itzaltzea

Telefonoa itzaltzeko, sakatu 3 segundoz pizteko botoia, eta, ondoren, irristatu zirkulu zuria  aukerara.



3.25 Pribatutasuna eta segurtasuna

3.26 Informazioaren eta baimenen kudeaketa

3.26.1 Informazio pertsonala babestea

Aplikazio batek informazio pertsonala irakurtzen duenean (hala nola deien historia edo kontaktuak), sistemak datu horiek babestuko ditu, zabal ez daitezten.

Informazio pertsonala babesteari buruzko doikuntzak aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Informazio pertsonalaren babesa».


3.26.2 Aplikazioen baimenak kudeatzea

Zure aplikazioetarako baimenak kudeatzeko (adibidez, Kokapenari, egindako deiei eta kameraren erabilerari buruzko informazioa irakurtzea), sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Baimenak».

«Baimenak» fitxan, funtzio bakoitzerako baimena duten aplikazio-kopurua ikus dezakezu. Funtzio jakin baterako sarbidea duten aplikazioen zerrenda ikusteko, ukitu funtzioaren izena. Funtziorako aplikazioaren baimenen doikuntzak aldatzeko, ukitu aplikazioaren izena eta hautatu «Baimendu», «Debekatu» edo «Galdetu».



«Apps» fitxan, aplikazio jakinetarako baimenak ezar ditzakezu. Aplikazio baterako baimenak aldatzeko, ukitu funtzioaren izena eta hautatu «Baimendu», «Debekatu» edo «Galdetu».



3.27 Larrialdiak (SOS)

«Larrialdiko SOS» funtzioaren bidez larrialdi-deiak egin ditzakezu eta sorospenezuzkoak bizkor bidali, larrialdi-egoera batean.


3.27.1 Larrialdiak (SOS) funtzioa aktibatzea

Sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Larrialdiko SOS». Zehaztapenak eta baldintzak arretaz irakurri ondoren, ukitu «Onartu».

3.27.2 Larrialdi-zenbakiak

Larrialdi-zenbakiak ikusteko eta gehitzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Larrialdiko SOS» > «Larrialdi-zenbakiak».

Telefonoaren sistemak 3 larrialdi-zenbaki ditu aurrez ezarrita: “Polizia”, “Suhiltzaileak” eta “Anbulantzia”. Beste 3 larrialdi-zenbaki gehitu ditzakezu.



3.27.3 Larrialdi-deiak egitea

- Sakatu pizteko botoia bost aldiz jarraian bizkor, larrialdi-deiaren pantailan sartzeko. Ukitu nahi duzun zerbitzua.
- Aktibatu “Markatu automatikoki zenbaki lehenetsia” funtzioa, pizteko botoia sakatuta. Larrialdi-deia automatikoki markatuko da 3 segundoko atzerako kontaketa baten ondoren.

3.27.4 Larrialdi-mezuak bidaltzea

«Bidali SOS mezu» funtzioa aktibatzen baduzu, larrialdi-deiaren pantailan sartzean SOS mezu bat bidal diezaiekezu larrialdi-kontaktu batera. Lehenespenez, mezuak uneko Kokapena adieraziko du. Horrez gain, inguruko irudiak edo 5 segundoko audio-erregistro bat ere sar ditzakezu mezuan.

3.28 Pribatutasun-kodea

Aplikazio edo fitxategi independenteei pribatutasun-maila bat gehitzeko, pribatutasun-kode bat ezar dezakezu. Pribatutasun-kodea aktibatuta dagoela, pasahitz bat sartu behar da hautatutako aplikazio eta fitxategietara sartzeko.

Pribatutasun-kode bat ezartzeko edo aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Hatz-marka, aurpegia eta ezkutuko kod.» > «Pribatasun-pasahitza».

3.28.1 Pribatutasun-kodea berrezartzea

Okerreko kodea sartuz gero, «Pasahitza ahaztu zait» ukitu dezakezu, eta hura berrezartzeko aukera hauetako bat erabili:

- Segurtasun-galdera: segurtasun-galdera bati erantzun.
- Segurtasuneko mezu elektronikoa: pasahitza sortzeko garaian segurtasuneko helbide elektronikoa sartu bada, helbide hori sar dezakezu egiaztatze-kodea jasotzeko.
- OPPO ID: OPPO ID bat lotu bazenuen pribatutasun-kodearekin, saioa abiaraz dezakezu hari lotutako OPPO ID erabilia.

3.29 Aplikazioak zifratzea

Pribatutasun-kodea ezarri ondoren, aplikazioak banaka blokeatzeko erabil dezakezu, aplikazioak zifratzeko aukera baliatuz. Aplikazio bat zifratzeko funtzioa aktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Aplikazio-blokeoa», ukitu Blokeatu nahi duzun aplikazioa, eta aktibatu «Gaitu pasahitza egiaztatzea».

3.30 Pantaila nagusian ikonoak ezkutatzeta

Pantaila nagusian zenbait ikono ezkutatzeko ere erabil dezakezu pribatutasun-kodea. Ezkutuko aplikazio-ikonoak ikusteko, aurretik hautatutako sarbide-zenbakia idatzi behar da markaketa-teklatuan.

Aplikazio baten ikonoa ezkutatzeko, aplikazioak aktibatuta eduki behar du aplikazioak zifratzeko funtzioa. Sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Aplikazio-blokeoa», ukitu ezkutatu nahi duzun aplikazio-ikonoa, eta aktibatu «Ezkutatu hasierako pantailako ikonoa».

3.31 Ordainketak babestea

Ordainketak babesteko funtzioak mugikorren bidez egiten diren ordainketen segurtasuna eta pribatutasuna bermatzen du. Zure telefonoak automatikoki egiazta dezake mugikorraren inguruko segurtasuna ordainketa egiteko, barnean harturik sistemaren eta aplikazioaren segurtasuna.

Ordainketa egiteko unean ingurua aztertzeko, edo aplikazio jakin batzuetarako ordainketa babesteko funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Ordainketa-babesa».

3.32 Jazarpenaren aurkako aukera

Zure telefonoak automatikoki blokea ditzake zure terminalean jasotako dei eta mezu susmagarriak.

3.32.1 Deiak blokeatzea

Blokeo-arauak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Jazarpen-aurkakoa» > «Blokeatu deiak».

- Jasotzen diren deiak blokeatzea: dei guztiak Blokeatuko dira, onartutako zenbakietatik edo VIP kontaktuetatik datozenak izan ezik.
- Zenbaki ezezagunetatik jasotzen diren deiak blokeatzea: zenbaki ezezagunetatik jasotako dei guztiak blokeatzen dira. Kontuz ibili funtzio hori aktibatzean, gerta baitaiteke dei garrantzitsuak blokeatzea.
- Kokapen geografikoaren arabera zenbaki ezezagunetatik jasotzen diren deiak blokeatzea: toki jakin batzuetatik jasotzen dituzun deiak Blokeatu ditzakezu.
- Dei-seinale bakarra egiten duten edo zenbakirik ez duten deiak blokeatzea: dei-seinale bakarra eta zenbakia ezkutuan duten zenbaki ezezagunetatik jasotzen diren deiak Blokeatuko dira.

3.32.2 Mezuak blokeatzea

Mezuen blokeo-arauak berrezartzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Jazarpen-aurkakoa» > «Blokeatu mezuak».

Mezuak spam gisa sailkatzeko gako-hitzak

Aukera honetan sartutako gako-hitzak dituzten zenbaki ezezagunen mezuak spam gisa hartuko dira.

Zenbaki ezezagun guztietatik datozen mezuak blokeatzea

Kontaktuen zerrendan ez dauden zenbaki guztietako mezuak Blokeatu egingo dira.

3.32.3 Zenbaki blokeatuak

Zenbaki jakin bateko dei eta mezu guztiak blokea ditzakezu, aukera honetan gehituz gero. Zenbaki Blokeatuen zerrenda editatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Jazarpen-aurkakoa/Fraude» > «Números bloqueados».

3.32.4 Onartutako zenbakiak

Zenbaki jakin bateko dei eta mezu guztiak onar ditzakezu, aukera honetan gehituz gero. Zenbaki onartuen zerrenda editatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Jazarpen-aurkakoa» > «Zerrenda zuria».

3.33 Kids Space

Haurren gunean, hau egin dezakezu:

- Zure haurrek aldi bakoitzean telefonoa zenbat denboran erabiliko duten pertsonalizatu.
- Zure haurrek erabil ditzaketen aplikazioak zehaztu.
- Haurrak telefonoa erabiltzen duenean sare mugikor batera konekta dadin eragotzi.

Haurren gunean sartzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Haurren txokoa». Pertsonalizatu doikuntzak eta ukitu «Sartu haurren txokoan». Aurrez ezarritako denbora-tartea igarotzen denean, telefonoa automatikoki Blokeatuko da, eta pantailaren blokeo-kodea beharko da hura desblokeatzeko.

Haurren gunetik ateratzeko, ukitu «Utzi haurren txokoa» pantailaren beheko aldean eta sartu kodea.

3.34 Kutxa gotorra

Zure Kutxa gotorrean, argazkiak, audio-fitxategiak, dokumentuak eta bestelako fitxategi batzuk ezkuta ditzakezu. Kode bat, hatz-marka edo aurpegia beharko dira kutxa gotorreko fitxategietara sartzeko. Ezin dira Kutxa gotorreko fitxategien pantaila-argazkiak egin.

3.34.1 Kutxa gotorrera fitxategiak gehitzea


Hiru modu daude fitxategiak zure kutxa gotorrera gehitzeko.

Kutxa gotorretik

Sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Segurtasun-gune pribatua». Egiaztatu zure kodea eta hautatu zure kutxa gotorrera gehitu nahi dituzun fitxategiak.

Fitxategien kudeatzailetik


Ireki «Fitxategi-kudeatzailea» eta hautatu zure Kutxa gotorrera gehitu nahi dituzun fitxategiak. Pantailaren behealdean, ukitu «Gehiago», eta, ondoren, «Ezarri pribatu gisa».



Argazkietatik

Ireki «Argazkiak» eta hautatu zure Kutxa gotorrera gehitu nahi dituzun argazkiak. Pantailaren behealdean, ukitu «Ezarri pribatu gisa».

3.34.2 Pantaila nagusira kutxa gotorraren ikonoa gehitzea

Pantaila nagusira kutxa gotorraren ikonoa gehitzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Segurtasun-gune pribatua», eta sartu zure kodea. Ukitu  goiko eskuineko izkinan, eta aktibatu «Hasierako pantailaren lasterbidea».

3.34.3 Kutxa gotorreko fitxategietara sartzea

Kutxa gotorreko fitxategietara sartzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Segurtasuna» > «Segurtasun-gune pribatua», edo sakatu pantaila nagusiko «Segurtasun-gune pribatua» ikonoa, halakorik sortu baduzu. Kutxa gotorra desblokeatzeko, erabili zure kodea, hatz-marka edo aurpegia.

4. Tresnak eta aplikazioak

4.1 Aplikazioei buruzko oinarrizko kontzeptuak


4.1.1 Aplikazioak deskargatu eta instalatzea

ColorOS 6ren funtzioak zabaltzeko eta hura hobeto erabiltzeko, aplikazioak deskarga eta instala ditzakezu Google Play Store-tik.

1. Ireki Play Store aplikazioa.
2. Bilatu eta hautatu deskargatu nahi duzun aplikazioa. Aurkezpen-orri bat agertuko da, aplikazioaren xehetasun, berrikuspen eta gomendioak jasotzen dituena.
3. Aplikazioa deskargatu eta instalatzeko, ukitu «Instalatu».
4. Aplikazioa instalatu ondoren, ukitu «Ireki» Play Store-n edo aplikazioaren ikonoa pantaila nagusian, hura exekutatzeko.



Instalaturako aplikazioei buruzko xehetasunak


Instalaturako aplikazioei buruzko xehetasunak ikusteko, ireki Play Store, ukitu ☰ eta, ondoren, «Nire aplikazioak eta jokoak». Ukitu interesatzen zaizun aplikazioa, haren aurkezpen-orria ikusteko.



4.1.2 Aplikazio batetik bestera aldatzea

Aplikazio batetik bestera bizkor pasatu zaitezke, bigarren mailan exekutatzen ari diren aplikazioen laguntzarekin.

- Ukitu  pantailaren beheko aldean, une horretan exekutatzen ari diren aplikazioak ikusteko. Zenbait aplikazio exekutatzen ari badira, irristatu eskuinera eta ezkerreara, horiek ikusteko.
- Ukitu aplikazio bat hara sartzeko, edo irristatu gorantz ixteko.
- Ukitu , exekutatzen ari diren aplikazio guztiak ixteko.



4.1.3 Aplikazioen ikonoak mugitu eta antolatzea

Hasierako pantaila nagusia antolatuta edukitzeko, aplikazioen ikonoak berrantolatu eta karpetaan taldekatu ditzakezu.


Aplikazioen ikonoak mugitzea

- Luze sakatu nahi duzun aplikazio-ikonoa, eta eraman nahi duzun tokira.
- Ikono bat beste orri batera mugitzeko, arrastatu lehenik nahi duzun orriaren aldera. Eutsi ikonoari pantailaren ertzean, orria automatikoki pasatu arte, eta, ondoren, askatu ikonoa nahi duzun lekuan. Beheko ikonoen gainean dauden puntuak adierazten dute zenbat pantaila nagusi dauden, eta nabarmendutako puntuak adierazten du zer orritan zauden une bakoitzean.
- Zenbait ikono batera mugitzeko, egin hatzak batzeko keinua pantaila nagusian edo sakatu luze pantaila nagusiko eremu zuri bat. Hautaketa-koadro bat irekiko da aplikazio-ikono bakoitzaren goiko eskuineko aldean. Hautatu zenbait ikono, eta luze sakatu hautatutako ikonoetako bat.

Arrastatzean, hautatutako ikono guztiak batera mugituko dira. Modu honetatik irteteko, ukitu pantaila nagusiaren eremu zuri bat.


Karpetak sortzea

Aplikazioaren ikonoak karpetetan multzokatuz gero, pantaila nagusia ordenatuta edukiko duzu, eta aplikazioak errazago bilatuko dituzu.



- Karpeta bat sortzeko, luze sakatu ikonoa, eta arrastatu eta askatu beste aplikazio-ikono baten gainean. Karpeta bat sortuko da, bi aplikazio horiek barnean direla, eta izen bat jasoko du automatikoki, aplikazio-moten arabera.
- Arrastatu beste aplikazio-ikono batzuk karpeta horretara, hala nahi izanez gero. Karpeta bakoitzean orri bat baino gehiago egon daitezke.
- Karpetari izena aldatzeko, ukitu irekitzeko, eta, ondoren, ukitu izenaren barra, eta aldatu. Ukitu barraren kanpoko aldean, edonon, izena gordetzeko.
- Karpeta bat ezabatzeko, atera aplikazio guztiak handik.

4.1.4 Aplikazioak desinstalatzea




Aplikazio bat desinstalatzeko, luze sakatu aplikazioaren ikonoa, haren lasterbide-menua bistaratu arte, eta, ondoren, ukitu «Ezabatu». Aplikazioko datu guztiak ere ezabatuko dira zure telefonotik.

4.2 Erlojua

Erlojua aplikazioarekin, aukera duzu data eta ordua aldatzeko, zenbait ordu-eremutako ordua ikusteko, alarmak eta tenporizadoreak ezartzeko eta kronometroarekin denborak neurtzeko.

4.2.1 Erlojuaren doikuntzak aldatzea

Ireki erlojua eta ukitu  goiko eskuineko izkinan, «Data eta ordua» doikuntza-orrian sartzeko.

- «24 orduko formatua»: lehenespenez aktiboa dagoen doikuntza da. Desaktibatuz gero, 12 orduko formatuan bistaratzen da ordua.


- «Ezarri automatikoki data eta ordua»: doikuntza hori aktibatzen baduzu, telefonoa automatikoki egokituko da ordua sare mugikor batera konektatuta dagoenean.
- «Ordu-zona» eta «Ezarri ordua»: «Ezarri automatikoki data eta ordua» funtzioa desaktibatzen baduzu, ordu-eremua eta ordua eskuz aldatu ahal izango dituzu.
- «Bi erloju»: doikuntza hori aktibatzen baduzu, «Erakutsi erloju duala» atalean zehaztutako erlojuak zure bizilekuaren ordua adieraziko dute, eta, han ez zaudenean, une horretan zauden hiriko ordua.
- «Bizitokia»: hiri bat hauta dezakezu bizileku gisa.
- «Erakutsi erloju duala»: erloju dualean bistaratuko diren kokapenak hauta ditzakezu hemen.

4.2.2 Erlojua

Erlojuan, zenbait tokitako uneko ordua ikus dezakezu.

Ordu-eremu baten erlojua gehitzea

1. Ireki erlojua, eta ukitu «Erlojua», pantailaren goiko aldean.
2. Ukitu **+** goiko eskuineko izkinan, herrialdeak, eskualdeak edo hiriak bilatzeko.
3. Ukitu kokapen bat hango tokiko ordua gehitzeko erlojuan.
4. Tokiko ordu bat ezabatzeko, luze sakatu eta ukitu «Ezabatu». Aldi berean tokiko zenbait ordu ezabatzeko, ukitu «Editatu» goiko ezkerreko aldean, hautatu ezabatu nahi dituzun Tokiko orduak eta ukitu «Ezabatu».
5. Gehitutako tokiko ordu guztiak pantaila nagusian ikusteko, luze sakatu pantaila nagusiko eremu zuri bat, ukitu «Widgets» eta mugitu munduko erlojuaren widgeta pantaila nagusian nahi duzun tokira.




4.2.3 Alarma

Zure telefonoa alarma gisa erabil dezakezu, Erlojua aplikazioan ordu jakin batean soinu- edo bibrazio-abisu bat hautatuta.

Alarma bat sortzea

- Ireki erlojua, eta ukitu «Alarma», pantailaren goiko aldean.
- Alarma bat gehitzeko, ukitu **+** eskuineko goiko aldean.
- Hautatu alarmak jotzeko ordua. Nahi izanez gero, idatzi alarmaren deskribapena.
- Ukitu «Errepikatu» alarmak asteko zein egunetan joko duen hautatzeko.
- Ukitu «Tonua» alarmarako tonu bat aukeratzeko.
- Ukitu «Bibratu» aukeraren eskuinean dagoen etengailua, alarmarekin batera telefonoak dar-dar egiteko aukera desaktibatzeke edo aktibatzeke.
- «Atzeratu» aktibatzen baduzu, alarma 5 minutu atzeratu ahal izango duzu pizteko botoia sakatuta, edo «Atzeratu» sakatuta, alarma aktibatu ondoren.
- Doikuntzak konfiguratu ondoren, ukitu «Gorde».

Oharrak:

- Alarmek jo egingo dute telefonoa itzalita badago ere.
- Alarmak aktibatuta badaude,  ikonoa bistaratuko da egoera-barran.


Alarma bat editatzea edo ezabatzea

- Alarma bat doitu ondoren, desaktibatu edo aktibatu ahal izango duzu, alarmen zerrendan eskuinean dagoen etengailua ukituz.
- Alarma bat editatzeko, ukitu alarmen zerrendan.
- Alarma bat ezabatzeko, luze sakatu alarma, eta ukitu «Ezabatu». Aldi berean alarma bat baino gehiago ezabatzeko, ukitu «Editatu» goiko ezkerreko aldean, hautatu ezabatu nahi dituzun alarmak, eta ukitu «Ezabatu».

4.2.4 Kronometroa

Erlojuan, Kronometroa doitu dezakezu denbora neurtzeko.



1. Ireki erlojua, eta ukitu «Kronometroa», pantailaren goiko aldean.
2. Denbora neurtzen hasteko, ukitu «Hasi». Kronometroak aurrera egiten jarraituko du, aldi berean beste aplikazio batzuk irekitzen baditu ere.
3. Birak erregistratzeko edo neurtutako denbora segmentutan banatzeko, ukitu «Bira».
5. Denbora neurtzeari uzteko, ukitu «Gelditu».
6. Kronometroaren erregistroa ezabatzeko, ukitu «Berrezarri».




4.2.5 Tenporizadorea

Erlojua aplikazioaren Tenporizadorea funtzioa erabil dezakezu gertaera baterako edo gehiagotarako atzerako kontaketa bat konfiguratzeko.

Tenporizadorea doitzea

1. Ireki erlojua, eta ukitu «Tenporizadorea», pantailaren goiko aldean.
2. Irristatu gorantz edo beherantz ordu, minutu eta segundoaren hautagailuak, edo ukitu aurrez ezarritako tenporizadore bat hautagailuen azpian.
 - Tenporizadore bat sortzeko, ukitu , ezarri etiketa eta denbora bat, eta, ondoren, ukitu «Gorde».
 - Aurrez ezarritako tenporizadore bat ezabatzeko, ukitu «Editatu» goiko ezkerreko izkinan, eta  ezabatu nahi duzun tenporizadorearen goiko eskuineko izkinan. Ondoren, ukitu «Eginda».
3. Atzerako kontaketa hasteko, aukeratu «Hasi».
4. Atzerako kontaketa eteteko, ukitu «Pausatu». Atzerako kontaketa berriz aktibatzeko, ukitu «Berrezarri».

5. Atzerako kontaketa geldiarazteko eta tenporizadorearen doikuntzetara itzultzeko, ukitu «Utzi».



4.3 Eguraldia


Zure telefonoak zenbait hiritako eguraldiari buruzko informazioa denbora errealean erakuts diezazuke.

4.3.1 Telefonoari baimena ematea Kokapenari buruzko informazioa eskuratzeko


Informazio zehatza bistaratzeko, Eguraldia aplikazioak zure Kokapenari buruzko informazioa behar du. Eguraldia aplikazioa irekitzean Kokapen-zerbitzua aktibatuta ez badago, aktibatzeko eskatuko dizu. Ukitu «Gaitu» eta, ondoren, «Kokapen-zerbitzua».

4.3.2 Tokiko iragarpenak eta eguraldia ikustea



- Uneko zure Kokapenean eguraldiari buruzko xehetasunak ikusteko, ireki Eguraldia aplikazioa. Tokiko eguraldiari buruzko informazioa bistaratuko da.
- Ordukako eguraldi-iragarpena pantailaren beheko aldean bistaratzen da. Egunaren gainerako orduetarako ordukako iragarpena ikusteko, irristatu ezkererantz eguraldiaren ordukako iragarpen-eremua.
- Airearen kalitatea, ikuspena, UV indizea, hezetasuna eta abar kontsultatzeko, irristatu gorantz.




4.3.3 Beste herri batzuetako eguraldia kontsultatzea

- Ireki Eguraldia aplikazioa, eta ukitu  eskuineko goiko aldean.
- Zenbait hiritako iragarpena ikusteko, irristatu ezkerredera edo eskuinera eguraldiari buruzko informazioaren orri nagusian.

4.3.4 Herriak gehitzea

1. Ukitu  goiko eskuineko izkinan.
2. Ukitu HIRI NAGUSIAK zerrendetako hiri bat, edo idatzi herri baten izena bilaketa-barran, ukitu , eta gehitu nahi duzun herria.




4.3.5 herri bat ezabatzea

1. Ukitu  goiko eskuineko izkinan.
 2. Ukitu «Editatu».
 3. Hautatu gutxienez ezabatu nahi duzun herri bat eta ukitu «Ezabatu».
 4. Herriak ezabatu ondoren, sakatu «Eginda».
-

4.4 Kalkulagailua

Kalkulagailuan eragiketa matematikoak egin ditzakezu, eta tasak eta beste unitate batzuk bihurtu.

4.4.1 Eragiketa matematikoak

- Oinarrizko eragiketa matematikoak egin ditzakezu; ukitu , kalkulagailu zientifikoa irekitzeko.
- Uneko pantailatik zenbakiak ezabatzeko, ukitu .
- Kalkulu-erregistroak ikusteko, irristatu  botoia pantailaren erditik beherantz. Kalkulagailuaren pantaila nagusira itzultzeko, ukitu «Jarraitu».

4.4.2 Kanbio-tasa bihurtzea

Ukitu «Truke-tasa» pantailaren goiko aldean, zenbait tasaren arteko bihurketak egiteko. Kanbio-tasaren datuek Webull Financial dute iturri. Luze sakatu tasaren kopurua arbelean kopiatzeko.

4.4.3 Unitate gehiago bihurtzea

Ukitu «Gehiago», pantailaren goiko aldean, beste unitate batzuk bihurtzeko.



4.5 Iparrorratza

Iparrorratzari esker, nabigatu egin dezakezu, eta zure telefonoaren orientazioa, eta latitudea eta longitudea egiaztatu.

4.5.1 Iparrorrazari zure Kokapenera sartzen uztea

Informazio zehatza bistartzeko, Iparrorratza aplikazioak haririk gabeko sarerako sarbidea eduki behar du, bai eta zure Kokapenari buruzko informazioa ere. Iparrorratza irekitzen duzun lehen aldian, aplikazioak baimena eskatuko dizu zure lokalizazioari buruzko informazioa erabiltzeko eta hari gabeko sarera konektatzeko. Ukitu «Ados» baimena aktibatzeko.

4.5.2 Iparrorratza kalibratzea

Iparrorratza lehen aldiz erabili aurretik, kalibratu egin beharko duzu, adierazten den moduan mugituz.



4.5.3 Telefonoaren orientazioa egiaztatzea

- Jarri mugikorra horizontalean.
- Iparrorratzaren azpian dagoen eremuak telefonoaren orientazioa adierazten du.
- Pantailaren behealdeak uneko Kokapenaren latitudea eta luzera adierazten ditu.






4.6 Deiak



4.6.1 Deitzea

Telefono honetatik deiak egiten hiru modu daude:

Zenbaki bat markatzea

1. Ireki Telefonoa aplikazioa.
2. Hautatu markatu nahi duzun zenbakia telefonoko teklatua erabilita. Zenbaki bat ezabatzeko, ukitu . Zenbaki bat itsasteko, luze sakatu telefono-teklatuaren gainean dagoen idazteko eremua, arbelaren menua ireki dadin, eta, ondoren, ukitu «Pegar».
3. Ukitu  zenbakia markatzeko.
4. Zenbait SIM txartel aktibatuta badaude, ukitu deia egiteko erabili nahi duzun txartela eta, ondoren, .

Kontaktu bati deitzea

1. Ireki Telefonoa aplikazioa eta ukitu «Kontaktuak».
2. Ukitu deitu nahi duzun kontaktua.
3. Ukitu markatu nahi duzun zenbakiaren ondoko  ikonoa.
4. Zenbait SIM txartel aktibatuta badaude, ukitu deia egiteko erabili nahi duzun txartela eta, ondoren, .

Deiak itzultzea


1. Ireki Telefonoa aplikazioa. Azkena egindako deien zerrenda bistaratuko da.
2. Ukitu deitu nahi duzun zenbakia.

Oharra: ukitu  azkena egindako deien zerrendan, deia xehetasunak ikusteko.

4.6.2 Gogokoak

Kontaktuak gogoko gisa marka ditzakezu, haiei errazago deitzeko.

Kontaktu bat gogoko gisa hautatzea

1. Ireki Telefonoa aplikazioa eta ukitu «Gogokoak».
2. Ukitu  goiko eskuineko izkinan.
3. Ukitu erantsi nahi den kontaktua.

Gogokoetako kontaktu bat ezabatzea


1. Ireki Telefonoa aplikazioa eta ukitu «Gogokoak».
2. Ukitu «Editatu» goiko eskuineko izkinan.
3. Hautatu ezabatu nahi duzun kontaktua.
4. Ukitu «Ezabatu».
5. Gogokoetako kontaktuak ezabatu ondoren, sakatu «EGINDA».

4.6.3 Larrialdi-dei bat egitea

Zure telefonotik larrialdi-deiak egiteko hiru modu daude:

Larrialdi-deia egitea pantaila blokeatuta dagoela

Pantaila blokeatuta dagoenean ere egin ditzakezu larrialdi-deiak.

1. Ukitu «Larrialdietako deia» kode-interfazearen beheko ezkerreko aldean.
2. Markatu larrialdi-zenbakia eta ukitu  deia egiteko.

Larrialdiak (SOS)



Zure telefonoak larrialdi-deiak egin ditzake, edo larrialdi-SMSak bidali, pizteko botoia 5 aldiz jarraian bizkor sakatuta, doikuntza aktibatuta badago. Doikuntza hori aktibatzeke, sakatu “Ezarpenak” > “Segurtasuna” > “Larrialdiko SOS”, eta aktibatu “Sakatu pizteko botoia behin eta berriz larrialdi-dei bat egiteko”.

Larrialdiak (SOS) atalari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus Larrialdiak (SOS).

4.6.4 Sarrerako deiak kudeatzea

Deiak jasotzen dituzunean, horiei erantzun, isilarazi edo uko egin diezaiokezu, edo SMS baten bidez erantzun.

Deiei erantzutea



- Telefonoa desblokeatuta dagoela dei bati erantzuteko, ukitu .
- Telefonoa desblokeatuta dagoela dei bati erantzuteko, mugitu  botoia gorantz.

Entzungailuetara edo bluetooth bidez konektatuta zaudenean telefonoak automatikoki erantzun dezan, sakatu «Ezarpenak» > «Sistemaren aplikazioak» > «Deitu» > «Erantzun automatikoa», eta aktibatu «Erantzun automatikoa». Erantzun aurretik pasatu beharreko denbora doitzeko, ukitu «Erantzun automatikoaren atzerapena».

Deiak isiltzea

- Sarrerako dei bat isilarazteko, ukitu «Mututu» edo sakatu bolumena jaisteko botoia terminalaren alboan.
- Dei bat isiltzean, ez zara deia baztertzen ari. Isildu ondoren ere, erantzuteko aukera duzu.

Deiak ez onartzea

- Telefonoa desblokeatuta dagoela dei bat baztertzeke, ukitu .
- Telefonoa desblokeatuta dagoela dei bati erantzuteko, irristatu  botoia gorantz.
- Ahots-postontzia aktibatua baduzu, deia baztertu ondoren, solaskideak ahots-mezu bat utz dezake.

Deiak blokeatzea

Telefono-zenbaki jakin bateko deiei erantzun nahi ez badiezu, bi modu daude zenbaki hori blokeatzeko.


- Kontaktuetatik: Ireki Telefonoa aplikazioa, eta ukitu «Kontaktuak». Ukitu kontaktua eta ukitu «Gehitu zerrenda beltzean», zenbaki horretatik jasotzen dituzun dei eta SMS guztiak blokeatzeko. Zerrenda beltzari buruz informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Zenbaki blokeatuak.
- Deien doikuntzetatik: Sakatu «Ezarpenak» > «Sistemaren aplikazioak» > «Deitu» > «Bloquear» > «Bloquear Deitu». Deiak blokeatzeko arauak ezar ditzakezu. Deiak blokeatzeko arauari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus Deiak blokeatzea.

Deiei SMS bidez erantzutea

Dei bat jasotzen duzunean, ezin baduzu erantzun, deia baztertu egin dezakezu, eta aurrez idatzitako SMS baten bidez erantzun.

- Aurrez idatzitako SMSak ikusteko, sakatu «Ezarpenak» > «Sistemaren aplikazioak» > «Deitu» > «Erantzun SMS bidez».

- Ukitu SMS bat hura editatzeko. Aldatu ondoren, ukitu «Gorde».
- Aurrez ezarritako SMSak lehen zeuden bezala uzteko, ukitu «Berrezarri».
- Dei bat jasotzen duzunean SMS batekin erantzuteko, ukitu «Mezua» eta hautatu idatzita duzun SMS bat, edo ukitu «Pertsonalizatu» zure SMSa idazteko.



Deia zain




Telefonoz hitz egiten ari zarela, ezin diozu beste dei bati erantzun aurrenekoa eseki gabe. Hitz egiten ari zarela beste dei bat jasotzen ari zarela jakinarazteko sistemak, «Eutsi» funtzioa aktiba dezakezu.

Deia zain uzteko aukera aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Sistemaren aplikazioak» > «Deitu» > «Operadorearen dei-ekarpenak» > «Additional Settings» > «Call Waiting».

4.6.5 Hitz egiten ari zarela, beste funtzio batzuk erabiltzea


Hitz egiten ari zarela, telefonoko beste funtzio batzuk erabil ditzakezu, deia eten beharrik gabe.

Audio-doikuntzak

- Bolumena doitzeko, sakatu bolumen-teklak, telefonoaren ezkerreko aldean.
- Mikrofonoa isilarazteko, sakatu .
- Dei bat zain uzteko, ukitu .
- Bozgorailua aktibatzeke, ukitu .

Talde-dei bat egitea

Zure operadoreak aukera ematen badu, zenbait solaskiderekin aldi berean hitz egin dezakezu.




- Solaskide bat gehitzeko, ukitu  hitz egiten ari zarela. Ondoren, itzuli uneko deira, markatu solaskide berriaren zenbakia eta ukitu «Bateratu». Errepikatu prozesu hori solaskide gehiago gehitzeko.
- Talde-dei batean, solaskide bat hauta dezakezu, eta harekin bakarrik hitz egin edo talde-deitik kanporatu.

Hitz egiten ari dela beste aukera batzuk erabiltzea

- Hitz egiten ari zarela, ukitu pantaila nagusiaren botoia pantaila horretara itzuli eta beste aplikazio batzuk irekitzeko.
- Deia pantailara itzultzeko, ukitu pantailaren goiko aldeko barra berdea.

4.6.6 Deiak grabatzea

Deia grabatzen hastea

- Dei batean, ukitu  grabatzen hasteko.
- Solaskideak deia hartzen duen unetik telefonoa grabatzen has dadin, markatu telefono-zenbakia eta ukitu . «Grabar» aukeraren ordez «Grabación en espera» jarriko du. Solaskideak deia hartzen duenean, automatikoki hasiko da grabatzen.
- Grabazioa eteteko, ukitu berriro .

Dei-erregistroak ikustea

Dei-erregistroak ikusteko, sakatu «Fitxategi-kudeatzailea» > «Audioa».

- Ukitu «Hautatu» goiko eskuineko izkinan, hautatzeko zer grabazio nahi dituzun moztu, kopiatu edo ezabatu, eta zer grabazio nahi dituzun ezarri pribatu gisa.

4.6.7 Galdutako edo desblokeatutako deiak ikustea

Galdutako edo desblokeatutako deiak kontsultatzeko, ireki Telefonoa aplikazioa, ukitu «Dei guztiak» goiko ezkerreko aldean, eta hautatu ikusi nahi duzun dei-mota.

4.6.8 Deien historiarekin egin daitezkeen eragiketak

Telefonoa aplikazioan, deien historiako zenbaki bat luze sakatu dezakezu, eta eragiketa-menu bat ireki, besteak beste, zenbakia kontaktu gisa gordetzeko, zenbakia zerrenda beltzean gehitzeko eta deien erregistroa ezabatzeko.

4.6.9 Operadorearen deien doikuntzak


Zure operadoreari lotutako doikuntzak aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Sistemaren aplikazioak» > «Deitu» > «Operadorearen dei-earpenak».




4.7 Mezuak

4.7.1 Mezuak jaso eta bidaltzea

Mezuak sortzea

Mezuak aplikazioan, SMSak zenbaki batera edo gehiagotara bidal ditzakezu aldi berean.

- Mezuak sortzeko, Ireki Mezuak aplikazioa, eta ukitu  eskuineko goiko aldean.

- «Hartzailea» eremuan, idatzi hartzailearen zenbakia edo ukitu  deien historian, taldeetan edo kontaktuetan zenbaki bat edo gehiago hautatzeko.
- «Mezuak» eremuan, pantailaren beheko aldean, idatzi mezu bat. Mezuari argazki bat, bideo bat, audio bat edo kontaktu-txartel bat gehitzeko, ukitu .
- Mezua bidaltzeko, ukitu .

SMSen historia ikustea

- Ukitu kontaktu bat mezuen zerrendan, harekin izandako elkarrizketen historia ikusteko.
- Mezuetan bilaketak egiteko, idatzi gako-hitza bilaketa-barran, pantailaren goiko aldean.

Mezuetako elkarrizketa batetik dei bat egitea

Kontaktu batekin izandako mezu-truketik hari deitzeko, ukitu  goiko eskuineko izkinan.

4.7.2 Mezuen jakinarazpenak ikustea

Telefonoa desblokeatuta dagoela, mezu berrien jakinarazpenak pantaila blokeatuan bistaratuko dira. Telefonoa blokeatu gabe badago, mezu berrien jakinarazpenak pantailaren goiko aldean bistaratuko dira. «Ez molestatu» moduan ez dira blokeatzen SMSak bistaratzea.

4.7.3 Mezuen jakinarazpenak pertsonalizatzea

Mezuen jakinarazpenak pertsonalizatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Jakinarazpen-eta egoera-barra» > «Kudeatu jakinarazpenak» > «Mezuak».

4.7.4 Mezuak ezabatzea


- Mezu bakar bat ezabatzeko, luze sakatu mezu hori eragiketa-menua bistaratu arte, eta ukitu «Ezabatu».
- Aldi berean mezu bat baino gehiago ezabatzeko, ukitu «Hautatu» goiko ezkerreko aldean, hautatu ezabatu nahi dituzun mezuak eta ukitu «Ezabatu».
- Kontaktu batekin izandako elkarrizketa oso bat ezabatzeko, luze sakatu kontaktua mezuen zerrendan, eta ukitu «Ezabatu».

4.8 Fitxategien kudeatzailea

Fitxategien kudeatzaileak automatikoki ordenatzen ditu zure telefonoko fitxategi guztiak motaren arabera, errazago kudeatu eta bilatu ditzazun.


4.8.1 Karpetak kudeatzea

Ireki «Fitxategi-kudeatzailea» eta ukitu «Biltegiratzea del Telefonoa» maiz erabiltzen diren karpeten zerrenda ikusteko eta barruan dituzten fitxategiak kudeatzeko. Karpeta bat ukitzean, dagokion bidea bistaratu da sisteman, pantailaren goiko aldean.



4.8.2 Fitxategiak urrunetik kudeatzea

Fitxategiak urrunetik kudeatzeko funtzioari esker, zure telefonoko fitxategiak ordenagailu batetik ikusi eta kudeatu ditzakezu, kablerik erabili gabe.

1. Ireki «Fitxategi-kudeatzailea» aplikazioa, eta ukitu  eskuineko goiko aldean.
 2. Ziurtatu haririk gabeko sare berera konektatuta daudela zure telefonoa eta fitxategiak urrunetik kudeatzeko erabiliko duzun ordenagailua.
 3. Ukitu «Hasi zerbitzua». FTP helbide bat bistaratuko da.
 4. Idatzi FTP helbide hori ordenagailuan.
 5. Idatzi erabiltzaile-izena eta egiaztatze-kodea telefonoa ordenagailura konektatzeko.
-

4.9 Telefonoaren kudeatzailea

Telefonoaren kudeatzaileak hainbat tresna eskaintzen ditu terminalaren segurtasuna eta errendimendua leku bakar batetik bizkor optimizatzeko.

4.9.1 Puntuazio orokorra eta optimizazioa

Telefonoaren kudeatzailea irekitzean, terminalaren errendimenduaren eta segurtasun orokorraren puntuazio bat kalkulatzen da, eta pantaila bistaratzen da.

Identifikatutako arazoei urrats bakar batean aurre egiteko, ukitu «Optimizatu» puntuazioaren azpian.



4.9.2 Kategorien arabera optimizatzea

Telefonoaren kudeatzailearen puntuazio orokorraren azpian, segurtasuna eta errendimendua bizkor optimizatzeko zenbait funtzio daude.

- Zure telefonoan biltegitratzeko tokia egiteko, ukitu «Garbitu biltegitratzea». Funtzio honi buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu *Biltegia garbitzea*.



- Aplikazio bakoitzerako baimenak ikusteko eta kudeatzeko, ukitu «PRIBATASUN-BAIMENAK». Aplikazioen baimenen funtzioari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi *Aplikazioen baimenak kudeatzea*.
- Zure telefonoan aplikazio eta fitxategi maltzurak bilatzeko, ukitu «BIRUS-AZTERTZEA». Sistemak fitxategi edo aplikazio maltzurak aurkitzen baditu, beheko ikonoa ukituz ezaba ditzakezu.



- Ordainketa-ingurunean izan daitezkeen ahultasunak bilatzeko eta ordainketa-aplikazioetarako ordainketak babesteko funtzioa aktibatzen edo desaktibatzen, ukitu «Ordainketa-babesa». Informazio gehiago lortzeko, ikusi *Ordainketak babestea*.

4.10 Musika

Musikaren aplikazioaren bidez audio-fitxategiak erreproduzitu eta kudeatu ditzakezu.

4.10.1 Audio-fitxategiak kudeatzea

Audio-fitxategiak eranstea

«Musika» aplikazioak automatikoki bilatuko ditu zure telefonoko audio-fitxategiak, eta gehitu egingo ditu. Bilaketa automatikoa agertzen ez diren audio-fitxategiak eskuz bilatzeko, ukitu **•••** goiko eskuineko izkinan eta, ondoren, «Arakatu tokiko abestiak».



Audio-fitxategiak ordenatzea

Antolatzeko modu bat hautatzeko, ukitu **•••** goiko eskuineko izkinan, eta, ondoren, «Hautatu antolatzeko modua».

Audio-fitxategietan eragiketak egitea

Ukitu **⋮** audio-fitxategiaren ondoan, doinua ezabatzeko edo dei-tonu gisa ezartzeko aukera emango dizun eragiketa-menua irekitzeko.

Erreprodukzio-zerrendak sortzea

Erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko, ukitu «Erreprodukzio-zerrenda» pantailaren goiko aldean eta, ondoren, « Erreprodukzio-zerrenda berria».

Erreprodukzio-zerrendara gehitzea



Erreprodukzio-zerrenda batean audio-fitxategiak gehitzeko, ukitu erreprodukzio-zerrenda bat zerrendatik eta, ondoren, ukitu «Gehitu abestiak». Ukitu gehitu nahi dituzun abestiak eta, ondoren, «Gehituta».


4.10.2 Audioa erreproduzitzea

Erreproduzio-barra pantailaren beheko aldean bistaratuko da. Barrako botoiak ukitu ditzakezu pistak erreproduzitzeko, hurrengora pasatzeko edo uneko erreproduzio-zerrenda ikusteko.

Pantaila osoan erreproduzitzeko modua

Pantaila osoan erreproduzitzeko moduan sartzeko, ukitu erreproduzio-barrako edozein gune, botoiak izan ezik.





- Mugitu ezkerrera edo eskuinera pantailaren erditik gorako aldean, azalen eta letren artean txandakatzeko.
- Uneko abestia gogoko erreproduzio-zerrendan gehitzeko, ukitu  goiko eskuineko izkinan. Ukitu berriro, abestia gogokoen erreproduzio-zerrendari gehitzeko.
- Audio-fitxategiaren izenaren azpian, aukera hauek daude: ☰ uneko erreproduzio-zerrenda ikusteko, 🎚️ soinua hobetzeko funtzioaren doikuntzak ikusteko,  erreproduzitzeko modua aldatzeko edo ••• abestian egin ditzakezun eragiketak dituen menua ikusteko.



4.11 Grabagailua

Grabagailuaren bidez, telefonoaren barneko mikrofona erabil dezakezu audioa grabatzeko.


4.11.1 Audioak grabatzea

- Audioa grabatzen hasteko, ukitu .
- Grabazioan une garrantzitsuak markatzeko, ukitu . Marka bati izena aldatzeko, ukitu  haren eskuinean.
- Beste aplikazio batzuk aldi berean erabili nahi badituzu, grabazioa egiten segituko du bigarren mailan. Grabagailura itzultzeko, ukitu barra gorria pantailaren goiko aldean edo irristatu hatza beherantz pantailaren goiko aldetik, jakinarazpen-zentroa irekitzeko eta ukitu uneko grabazioa.
- Grabazioa amaitu ondoren, ukitu , eman izena grabazioari hala nahi baduzu, eta, ondoren, ukitu «Ezabatu» edo «Gorde».



4.11.2 Grabazioa kudeatzea

- Luze sakatu grabazio-zerrendako grabazio bat, haren eragiketa-menua irekitzeko.
- Zenbait grabaziotan aldi berean eragiketak egiteko, ukitu «Hautatu» goiko eskuineko izkinan, hautatu grabazioak eta ukitu eragiketa bat.





4.12 Pantaila grabatzea

Zure telefonoak pantaila grabatzeko tresna bat du. Horri esker, joko eta eragiketa-pausoen bideoak grabatu ditzakezu, besteak beste.

4.12.1 Pantaila grabatzen hastea

- Irristatu hatza pantailan goiko aldetik behera kontrol-zentroa irekitzeko.

- Ukitu  goiko eskuineko izkinan.
- Ukitu , eta grabazioa automatikoki hasiko da hiru segundoko atzerako kontaketa ondoan.

Alboko barra adimenduna aktibatuta badago, pantaila horretatik ere hasi ahal izango duzu pantaila grabatzen. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi Alboko barra adimenduna.

4.12.2 Pantaila-grabazioa etetea

Pantaila-grabazio bat eteteko, ukitu grabazio-botoia. Pantaila-grabazioak automatikoki gordetzen dira bideoen karpetan, MP4 formatuan.

Pantaila-grabazioa automatikoki geldituko da eta fitxategia gorde egingo da, kasu hauetako edozeinetan:

- Grabazioak 5 GB baino gehiago dituenean.
- Zure telefonoaren pantaila blokeatzen denean.
- Dei bat egiten edo jasotzen duzunean.
- Telefonoa itzaltzen denean.


4.12.3 Pantaila-grabazioaren doikuntzak aldatzea

Pantaila-grabazioaren doikuntzak aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Sistemaren aplikazioak» > «Pantailaren grabaketa».

- Soinu-grabazioak baimentzea: aktibatu doikuntza hau pantaila-grabazioan soinuak ere grabatzeko.
 - Bideoaren bereizmena: bideoa 720 p-ra edo 480 p-ra graba dezakezu. 480 p hautatzen baduzu, irudiaren kalitatea txikiagoa izango da, baina baita lortzen diren fitxategien tamaina ere.
 - Sakaldiak grabazio-pantailan: doikuntza hori aktibatzen baduzu, kurtsore batek adieraziko ditu non sakatzen duzun pantailan, grabatzen ari zarenean.
 - Aurreko kamera: doikuntza hori aktibatzen baduzu, zure aurpegia grabatuko da; pantailan agertuko da zirkulu txiki batean.
-



4.13 Esku bakarraren modua

Eskuak libre ez dituzunean, esku bakarreko modua aktiba dezakezu, pantailan eremu aktibo murrizago bat gaitzeko, eragiketak esku bakarrarekin errazago egin ditzazun.

- Esku bakarraren modua aktibatzeko, irristatu hatza pantailaren goiko aldetik kontrol-zentroa irekitzeko, ukitu , eta, gero, «Esku bak. modu».
 - Esku bakarraren modua aktibo dagoela, ukitu pantaila aktiboaren eremuaren beheko [gezi horizontalak], pantailaren eremua beste izkinara mugitzeko.
 - Esku bakarraren modutik irteteko, ukitu pantaila aktiboaren eremuaren goiko ezkerreko izkinako [gezi diagonalak].
-

4.14 Gidatze adimenduna

Gidatze adimendunaren moduak lagundu diezazuke deiak hartzen eta mezuak erraz irekitzen gidatzen ari zaren bitartean.


- Gidatze adimendunaren modua aktibatzeko, irristatu hatza pantailaren goiko aldetik kontrol-zentroa irekitzeko, ukitu , eta, gero, «GIDATZE ADIMENDU...». Modu hori aktibo dagoenean egoera-barran,  ikonoa bistaratzen da.
 - Aukeratu dezakezu gidatze adimenduna automatikoki aktiba dadin telefonoa ibilgailu baten bluetoothera konektatzen denean. Funtzio hori aktibatu eta gidatze adimendunaren doikuntzak aldatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Zerbitzu adimendunak» > «Gidatze adimenduna».
-

4.15 Telefonoa klonatzea

Telefonoa klonatzeko funtzioarekin, erraz transferi ditzakezu zure telefono zaharreko datu guztiak terminal berrira, doikuntzak, argazkiak, kontaktuak eta aplikazioak barne.

4.15.1 Telefonoa klonatu aurretik

- Datuak transferitzeko, bai telefono berriak bai telefono zaharrak telefonoa klonatzeko aplikazioa instalatuta eduki behar dute. Hemen deskarga dezakezu: <https://i.clonephone.coloros.com/download>.
- Zure lehengo telefonoa iPhone bat bada, zure datuak iCloud-en sinkronizatu beharko dituzu transferentzia egin aurretik.



4.15.2 Telefonoa klonatzea



1. Ireki telefonoa klonatzeko aplikazioa telefono zaharrear eta berrian.
2. Bi terminaletan «Este es un Telefonoa nuevo» edo «Este es un Telefonoa antiguo» aukeratu ondoren, erabili Klonatu telefonoa aplikazioa terminal zaharrear, QR kodea eskaneatzeko telefono berrian.
3. Hautatu kategoría bat telefono zaharrerako. «iPhone» hautatzen baduzu, iCloud-eko kontuan hasi beharko duzu saioa, sistemak hala eskatzen duenean.
4. Konexioa ezarri ondoren, ukitu «Personalizar datos para clonar» transferitu beharreko datu-motak hautatzeko.
5. Transferentzia hasteko, ukitu «Iniciar clonación».
6. Telefono berrian, idatzi telefono zaharrear agertzen den egiaztatze-kodea. Datuak transferituko dira telefono berrian ezarritako sarbide-puntu pertsonal baten bidez.
7. Amaitu aurretik transferentzia eteteko, ukitu «Detener clonación».

4.16 Morroi adimendunak

Morroí adimendunari esker, telefonoa erabil dezakezu zerbitzu adimendunen bidez (funtzio bizkorrak, ibilbideen kudeaketa eta eguraldiari buruzko informazioa).

4.16.1 Morroi adimendunera sartzea

Morroi adimenduna aktibatzeke, sakatu «Ezarpenak» > «Zerbitzu adimendunak» > «Laguntzaile adimenduna». Morroi adimenduna aktibo dagoela, aukera horretara sar zaitezke pantaila nagusian eskuinera mugituz.

4.16.2 Bilaketa

Morroi adimendunaren orrian, zure telefonoan doikuntzak, fitxategiak eta informazioa bilatu ditzakezu gako-hitzak erabilita. Bilaketak egiteko, ukitu bilaketa-barra morroi adimendunaren orriaren goiko aldean, eta idatzi gako-hitza. Gako hitz hori Interneten bilatzeko, ukitu «Buscar la página web» emaitzen zerrendaren beheko aldean.

4.16.3 Funtzio bizkorak

Morroi adimendunaren orriko Funtzio bizkorren atalean, gehien erabiltzen dituzun aplikazioak ireki ditzakezu, pantaila behin bakarrik sakatuta. Funtzio bizkorren atala aktibatzeke edo desaktibatzeke eta aplikazioak gehitu edo ezabatzeke, ukitu **+** funtzio azkarren ataleko goiko eskuineko izkinan.

4.16.4 Zerbitzu iraunkorrak

Morroi adimendunaren orriko zerbitzu iraunkorren atalean, era askotako zerbitzuak erabil ditzakezu, hala nola podometroa eta gogoko kontaktuak. Ukitu **+** morroi adimendunaren orriaren goiko eskuineko izkinan, erabilgarri dauden zerbitzu iraunkor guztiak ikusteko eta morroi adimendunaren orriari gehitzeko.

4.16.5 Tokian tokiko zerbitzu iraunkorrak

Tokian tokiko zerbitzu iraunkorrek identifikatuko du non zauden, eta inguruari buruzko informazio erabilgarria emango dizute.

Adibidez, egutegiari gertaera bat gehitzen badiozu, atal honetan bistaratuko da, gertaera programatuta dagoen egunean.

5. Kamera

ColorOS 6 mugikorrarekin, argazki are politagoak atera ditzakezu, funtzio hauekin: argazkiak ateratzeko tenporizadorea, HDR, erretratu modua, ultragau modua eta Time lapse argazkia.


5.1 Argazkiak ateratzea

5.1.1 Distira doitzea


Ireki kamera. Fokuratze-eremu bat hauta dezakezu, argazkiaren markoaren edozein toki ukituta. Fokuratze-eremu bat ezarri ondoren, irristatu gorantz edo beherantz, distira doitzeko. Beste fokuratze-eremu bat hautatzeko pantaila ukitzen baduzu, berriz ezarriko da distira-doikuntza.

Oharra: «Ukitu argazkia ateratzeko» modua aktibatu baduzu, luze sakatu beharko duzu fokatzeko. Kameraren doikuntzei buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikusi *Kameraren doikuntzak*.

5.1.2 Zooma doitzea

Ukitu  zoomaren funtzioa erabiltzeko. Segitu botoi hori ukitzen, zoom-maila batetik bestera igarotzeko. Hatzak pantailan elkartuz edo bereiziz ere alda dezakezu zoom-maila.


5.1.3 Flasha doitzea

Ukitu  flasharen aukerak doitzeko: «Desaktibatuta», «Akt.», «Autom.» edo «Bete argia» «Autom.» moduan doitzean, kamerak automatikoki detektatuko ditu argi-baldintzak, eta flasha aktibatuko du, hala behar izanez gero. «Bete argia» aukera aktibatuz gero, flasha piztuta egongo da kamera irekita dagoen bitartean. Gauez edo argi gutxi dagoen lekuetan aukera hau aktibatzea gomendatzen dugu.


5.2 HDR


HDR funtzioa aktibatuta (goi-maila dinamikoko irudiak), kamerak argitasun-maila dinamikoagoko eta kontraste handiagoko argazkiak ateratzen ditu, giza begiak ikusten duenera gehiago hurbiltzen diren emaitzak eskaintzeko. Ukitu HDR ikonoa, aukera hauetako bat doitzeko: «Akt.», «Desaktibatuta» edo «Autom.».

5.3 Angeluhandi modua

Modu hori erabilia, argazki angeluhandiak atera daitezke. Ukitu  kameran, modu hori aktibatzeko.


5.4 Kolore bizen modua


Kolore itsugarria moduak koloreen intentsitatea eta distira hobetzen ditu, eta irudi biziagoak eskaintzen ditu. AAREN teknologiaren laguntzarekin, Kolore itsugarria moduak argazkiaren eszena identifikatzen du, pixelen xehetasun errealak, distira eta koloreak berrizatzeko. Ukitu  kameran, Kolore itsugarria modua aktibatzeko. Kolore itsugarria moduak koloreak hobetzen dituenez, ez da bateragarria kameraren iragazki-funtzioekin.




5.5 Argazki-iragazkiak


Argazkiak egitean iragazkiak gehitu ditzakezu, ikuspen-efektu askotarikoak lortzeko.


Ukitu  iragazki erabilgarriak zein diren ikusteko. Irristatu ezkerrera edo eskuinera, iragazkia aldatzeko eta denbora errealean iragazki bakoitzaren aurrebista ikusteko. Argazkiak berehala egin ditzakezu, iragazki bat aukeratu ondoren. Kolore itsugarria modua desaktibatu egingo da iragazkiak aplikatzean.



5.6 Erretratu modua


Erretratu moduarekin, Bokeh efektuko erretratu profesionalak egiteko aukera duzu. Aldatu «Erretratua» modura. Ukitu  ezkerreko goiko izkinan, iragazki bat hautatzeko.

Selfieak ere egin ditzakezu erretratu moduan. Ireki «Kamera», sartu Erretratua moduan eta ukitu  aurreko kamerara aldatzeko.




5.7 Argazkiak ateratzeko keinua


Keinuaren funtzioa erabiliz, argazkia ateratzeko keinu bat egin dezakezu eskuarekin, kamerak selfiea egin dezan telefonoari eutsi beharrik gabe.

Funtzio hau aktibatzeke, aldatu aurreko kamerara, ukitu , eta aktibatu «Argazkia ateratzeko keinua». Altxatu esku bat irekita kamerari begira, eta hark argazkia aterako du 3 segundoren buruan.

5.8 AAren bidez hobetzea

Aurreko kamera erabiltzen duzunean, mugitu ezker-eskuin  kontrol irristagarria, AA automatikoaren bidezko hobekuntza-maila doitzeko.


Selfie-kamera erabiltzean, AA bidezko 8 hobekuntza-funtzio izango dituzu aukeran.

Ukitu  beheko eskuineko izkinan, hobekuntza moduan sartzeko. Hor, aurpegia aerografiatu dezakezu, begiak luzatu, aurpegia lirainagoa jarri..., eta aurpegiko atalak nabarmentzeko eta moldaketak egiteko beste funtzio batzuk ere badituzu. Funtzio bat hautatu ondoren, kontrol irristagarria mugitu behar duzu aplikazio-maila doitzeko.


5.9 Ultragau modua

Ultragau modua aktibatuta dagoela, kamerak AA bidez hobetutako algoritmoak erabiliko ditu esposizio-maila desberdinekin argazkiak ateratzeko eta konbinatzeko, argazkiak argiagoak eta distiratsuagoak izan daitezen.

AI Ultra Clear Engine motorra du telefonoak, eta eszenako 21 elementu-kategoria identifika ditzake eta beste 800 eszena-konbinazio. Ultragau modua erabilia argazkiak ateratzean, kamerak erabakiko du zein den argazkiak ateratzeko aukerarik egokiena, eta kolorearen banaketa egokituko du, argi-baldintzen arabera hobetzeko.

Ultragau modua aktibatzeke, ireki aurreko kamera, ukitu , eta aukeratu «GAUA».


Oharra: eutsi eta ez mugitu telefonoa, argazkiak Ultragau moduan egitean.



5.10 Argazki panoramikoak ateratzea

Funtzio panoramikoa erabil dezakezu ikus-eremu zabalagoko argazkiak ateratzeko.

Atzeko kamera erabiltzea argazki panoramikoak ateratzeko

- Ireki «Kamera», ukitu , eta hautatu «PANO».
- Argazkiaren norabidea alda dezakezu, markoaren erdian dagoen gezi zuria sakatuta.
- Ukitu obturadorearen botoia eta aldatu pixkanaka enkoadraketa geziaren noranzkoan, zentratuta mantenduz. Argazki panoramikoa ateratzez amaitzeko, sakatu berriro obturadorearen botoia. Panoramikoa automatikoki amaituko da, enkoadraketa mugitzean norabide-aldaketa gehiegi hautematen baditu.

- Panoramika bertikalak egiteko, jarri telefonoa bertikalean, eta jarraitu horizontalean panoramikak ateratzeko emandako jarraibideei.


Aurreko kamera erabiltzea argazki panoramikoak ateratzeko

Aurreko kamera ere erabil dezakezu kamera biratuz argazki panoramikoak ateratzeko. Horretarako, segi pantailan agertzen den norabideari.

Argazki panoramikoak ateratzeko aholkuak

- Panoramikoek funtzioak ahalbidetzen duen luzera izan dezakete. Luzera maximora iritsi aurretik eteteko, ukitu berriro obturadorearen botoia.
- Gogoan izan: mantso mugitu telefonoaren enkoadraketa, kamerak ahalik eta xehetasun gehien fokatu eta har ditzan. Hala, argazki panoramikoak lez da lauso aterako.
- Ez mugitu kamera gorantz eta beherantz; bestela, argazkia ez da uniforme izango. Kamerak automatikoki amaituko du panoramikoak, mugimendu gehiegi detektatzen badu.

5.11 Aritu modua

Aritu moduaren bidez, kameraren parametroak zehaztasun gehiagoz doitu ditzakezu, argazki profesionalagoak ateratzeko. Modu hori aktibatzeke, ukitu  eta hautatu «EXPERT».

Esposizioa, zuriaren balantzea, fokuratzea eta esposizioaren balioa doitu daitezke. Ukitu doikuntza bat, haren kontrol irristagarrietan sartzeko eta parametroen maila aldatzeko.


Esposizioa: Esposizioa doitu, kameraren ISOaren balioa eta obturadorearen abiadura alda daitezke. ISOaren doikuntzak hartualdiaren argitasun orokorra aldatzen du. Zenbat eta ISO-maila handiagoa, orduan eta zarata gehiago egongo da argazki-hondoko eremuetan. Obturadorearen abiadurak zehazten du kameraren sentsorearen argiarekiko esposizio-denbora. Obturadorea zenbat eta bizkorrago sakatu, orduan eta garbiagoak izango dira mugimendudun objektuei ateratako argazkiak.

Zuriaren balantzea: Zuriaren balantzeak lotura estua du kolore-tenperaturarekin. Argazki batek tonalitate askotarikoak har ditzake argi-baldintzak aldatzen diren neurrian. Adibidez, lanpara fluoreszenteek ñabardura urdin samarra ematen diote argazkiari, eta argi gorriek, berriz, horixka. Zuriaren balantzea doitu, argazkien kolore-tenperatura orokorra aldatzen da, objektuak edo eszenak giza begiek ikusitakoaren antz handiagoa izan dezan.

Fokuratzea: aukera honi esker, argazki baten lehen planoan edo hondoan dauden objektuetara egokitu daiteke fokuratzea.

Esposizio-balioa: esposizioa konpentsatzeko aukera aktibatuta dagoela, kamerak automatikoki zehaztuko du esposizio egokiaren konpentsazio-parametro bat, argazki distiratsuagoak edo mateagoak egiteko.

5.12 Sticker-ak

Sticker funtzioari esker, argazkietan «eranskailu» bizidunak eta iragazkiak gehitu ditzakezu denbora errealean. Stickerren aukerara sartzeko, ireki «Kamera», ukitu  beheko ezkerreko aldean, eta hautatu «STICKER».

- AR stickerrak

AR stickers-en bidez, efektu bisualak gehitzen zaizkie argazkiei, dibertigarriagoak eta originalagoak izan daitezten. Sticker-en funtzioak kameran integratuta daude, eta argazkiak apaintzeko balio dute.

- Omojia

OPPO Omoji funtzioak zure aurpegiko espresioak hartzen ditu, eta 3D bidezko emoji bizidun bihurtu.

5.13 Kameraren doikuntzak


Ireki kamera eta ukitu  kameraren doikuntzak pertsonalizatzeko.


- Bolumen-botoia: bolumen-botoien funtzioak alda ditzakezu, kamera irekita dagoenerako. Eskura dauden aukerei esker, bolumen-botoiak ohiko bolumen-kontrol gisa erabiltzeaz gain, obturadore-botoi gisa edo zoom-kontrol gisa erabil ditzakezu.
- Obturadorearen soinua: aktibatu edo desaktibatu aukera hori, kameraren obturadoreak argazkiak ateratzean soinua atera dezan edo ez.
- Kokapena: aktibatu edo desaktibatu argazkiak ateratzean geolokalizazioari buruzko informazioa gehitzea nahi duzun ala ez.

- Selfiea iraultzea: Selfie kamerak ispilu bati begira bazeunden bezala ateratzen ditu argazkiak. «Biratu selfiea» aukera aktiba dezakezu, selfieak horizontalean alderantzikatzen.
- Argazkiaren formatu-ratioa: argazkien formatu-ratioa doitzeko aukera hauek dituzu: 4:3, 1:1, Pantaila osoa eta 4:3 Ultra HD (48 megapixelexkoa). *Oharra:* doikuntza hori ezin da aldatu erretratuak ateratzeko moduan.
- Tenporizadorea: 3 edo 10 segundoko atzerapena ezar dezakezu argazkiak ateratzeko.
- Keinua argazkiak ateratzeko: kameraren edozein tokitan ukitu dezakezu argazkiak ateratzeko. Funtzio hori aktibatuta dagoela, luzeago sakatu behar duzu markoa kamera fokuratzeko.
- Keinua argazkia ateratzeko: selfie kamerarekin bakarrik erabil daiteke aukera hori. Informazio gehiago lortzeko, ikus *Keinua argazkia ateratzeko*.
- Lauki-sarea: lauki-sareak laguntzen dizu kamera zuzen edukitzen.
- AA bidez eszena ezagutzea: funtzio hori aktibo dagoela, kamerak eszenak edo subjektuak identifikatzen ditu, sentsore adimendun integratuak erabiliz, eta adimena erabiliz parametroak doitzen ditu argazkia hobetzeko. *Oharra:* funtzio honek atzeko kamerarekin bakarrik funtzionatzen du.
- Ur-marka: argazkiei ur-marka bat gehitzeko aukera ematen du. Informazio gehiago lortzeko, ikusi *Ur-marka*.

5,14 Ur-marka

Funtzio hori aktiba dezakezu, zure argazkiei ur-marka bat gehitzeko. Ur-markari argazkilariari buruzko informazioa gehitu diezaiokezu.

Ur-markaren funtzioa aktibatzen, ireki kamera, ukitu , ukitu «Ur-marka», eta aktibatu «Ur-marka». Ondoren, ukitu «Egilea», argazkilariaren izena jartzeko ur-markaren lekuan.





5.15 Bideo-argazkia

Ireki kamera eta ukitu edo irristatu «BIDEOA» aukeraraino.

Bideo bat grabatzen hasteko, ukitu . Grabazioa geldiarazteko, ukitu .


Lehenespenez, bideoak 30 f/s-an grabatzen dira, 1080 p-ko bereizmenarekin.


Segundoko fotogramak eta bereizmena aldatzeko, ukitu , eta, gero, «Bideo-bereizmena». Zenbat eta fotograma gehiago segundoko eta zenbat eta bereizmen handiagoa, orduan eta handiagoa bideo-fitxategiaren tamaina.

Bideoa grabatzean, bigarren mailako obturadore bat agertuko da  botoiaren ezker aldean. Ukitu bigarren obturadore hori grabazioa eten gabe argazkiak ateratzeko.

5.16 Bideoak kamera geldoan

KAMERA GELDOA funtzioa erabilia, bideoa grabatu eta automatikoki bihurtzen du abiadura motelean erreproduzitzeko.


KAMERA GELDOA moduan sartzeko, ireki Kamera, ukitu  beheko ezkerreko izkinan, eta hautatu « KAMERA GELDOA ».

Lehenespenez, kamera geldoko bideoak 720 p-ko bereizmenarekin grabatzen dira. Bereizmena aldatzeko, ukitu , ondoren, «Bideo-bereizmena». 1080 p bereizmenarekin, bideo-fitxategien tamaina handiagoa izango da.

5.17 TIME LAPSE bideoa

TIME LAPSEk bideoa grabatu eta bihurtzen du abiadura handiko sekuentzia gisa erreproduzitzeko, bideoaren grabazioan tarteka ateratako hartualdiekin. TIME LAPSE moduaren bidez grabatutako bideoak hamarretik bateko erlazioarekin konprimitzen dira, jatorrizko bideoaren iraupena edozein dela ere.

Denbora-tarte luzeetan argazkiak ateratzeko, ziurtatu telefonoa leku egonkor eta seguruan dagoela.

Ireki kamera, ukitu  eta hautatu «TIME LAPSE».

5.18 Bideoak editatzea

Bideoa grabatu ondoren, zenbait edizio-tresna erabil ditzakezu metrajea zuzenean telefonoan aldatzeko.

Kamera aplikazioan bideoak bistaratzean, ukitu «Editatu» pantailaren beheko aldean, editatzeko moduan sartzeko.


Bideoak aplikazioan ikustean, hautatu bideo bat «Hautatu» ukituz, eta hautatu bideoa edo luze sakatu, eta, ondoren, ukitu «Editatu».

5.18.1 Bideo bat moztea

Arrastatu fotogramen bisorearen muturretako bat, bideoaren hasiera eta amaiera aldatzeko.

5.18.2 Bideoaren abiadura aldatzea

Bideoaren beheko aldean dagoen kontrol irristagarria mugitu dezakezu, erreprodukzio-abiadura aldatzeko.



Gai bat eta iragazki bat gehitzea

Bideo baten erreprodukzio-abiadura moztu eta aldatu ondoren, ukitu «Hurrengoa» gaiak eta iragazkiak gehitzeko.

Soinu-banda gehitzea

Zure bideoei soinu-banda bat gehitzeko, telefonoko edo sistemako musika-fitxategiak erabili ditzakezu.

Efektu bereziak eranstea

Bideoak editatzen dituzunean bakarrik erants ditzakezu efektu bereziak. Efektu berezi gehiago eransteko, gorde editatutako bideoa, eta hasi beste edizio-prozesu bat. Efektu berezi hauek daude eskura:

- Lehen plano: hautatutako bideo-fotograma handitzen du.
- Pulsazioa: hautatutako bideo-fotograman sakaldi-efektua sortzen du.

Testua eranstea

Bideo baten fotogrametan eta posizioetan testua erants dezakezu.

Ur-markak eranstea

Ukitu «Ur-marka» editatzen ari zaren bideoa dataren ur-marka gehitzeko. Ur-marka bideoaren ezkerreko beheko aldean bistaratuko da. Editatu ondoren, ukitu «EGINDA» gordetzeko.

5.19 Argazkiak


Argazki eta bideo guztiak Argazkiak atalean gordetzen dira. Aplikazio horretan saillkapen hau dago: «Argazkiak», «Albumak» eta «Oroitzapenak».

5.19.1 Argazkiak

Argazki eta bideo guztiak sortze-dataren arabera bistaratzen dira.


Argazkiak ikustea

Bereizi edo elkartu bi hatz pantailan, argazkiak urtearen, hilabetearen edo egunaren arabera ikusteko. Ukitu miniatura bat argazkia pantaila osoan ikusteko.





Argazki bat pantaila osoan ikustean, hatzak bereizi edo elkartu ditzakezu, irudia hurbildu edo urruntzeko. Ezkerrera edo eskuinera ere mugi zaitezke beste argazki batzuk bilatzeko.


Sakatu argazki edo bideo bat, pantaila osoan ikusteko. Argazki edo bideo batean egin daitezkeen eragiketen menua pantailaren beheko aldean dago.



Argazkiak bidaltzea


Argazkiak bidali edo partekatu nahi badituzu, ukitu  beheko ezkerreko izkinan.

Argazki edo bideo bat baino gehiago bidali nahi badituzu, sartu «Hautatu» moduan, miniaturen ikuspegian, «Hautatu» ukituz, edo luze sakatu argazki edo bideo bat. Hautatu zer argazki edo bideo bidali edo partekatu nahi dituzun, eta ukitu  beheko ezkerreko aldean.



Zenbait argazki edo bideo hautatzean, ekintza hauek ere egin ditzakezu:

- Argazkiak/bideoak pribatu gisa ezarri
- Argazkiak/bideoak album batera mugitu
- Collage bat egin
- Argazkiak/bideoak ezabatu



5.19.2 Albumak

Albumen orrian, argazki eta bideo guztiak gorde eta antolatzen dira, pantaila-argazkiak eta bilduma adimendunak barne.

Albumak ikustea

Argazkiak eta albumak bi albumetan sailkatzen dira, fitxategiak errazago bilatzeko eta bistaratzeko.

Gainera, album adimendunak argazkiak eta bideoak sailkatzen ditu, eta pertsona edo Kokapen zehatzak dituzten detektatzen du.

Album berri bat sortzea


Sortuta daudenez gain, album pertsonalizatuak sor ditzakezu.


Ireki «Argazkiak» > «Albumak», eta ukitu **+** eskuineko goiko aldean. Album berriaren izena idatzi ondoren, ukitu «Gorde».

Album berri bat sortzean, argazkiak eta bideoak miniatura sailkatuetan agertzen dira, album berrira transferitu nahi dituzunak hauta ditzazun. Argazki edo bideo bat hauta dezakezu miniatura ukituz, edo «Hautatu guztia» ukitu, argazki eta bideo guztiak hautatzeko. Albumerako argazki eta bideo guztiak hautatu ondoren, ukitu «Gorde» prozesua amaitzeko.

5.19.3 Oroitzapenak


«Oroitzapenak» aukeran arakatzen eta biltzen dira automatikoki bildumak, gaika, argazkiak ateratako egunen eta kokapenen arabera.

Ukitu «Oroitzapenak», oroitzapenak ikusteko. Ukitu oroitzapen baten miniatura, eta sakatu  ukitu, hura ikusteko. Oroitzapena automatikoki erreproduzituko da, musika eta efektu bisualekin, film bat balitz bezala.





Oroitzapen-bilduma bat sortzea

Zure oroitzapen-bilduma sor dezakezu.

Sartu «Argazkiak» > «Oroitzapenak» eta sakatu  eskuineko goiko izkinan oroitzapen-bilduma bat sortzeko. Idatzi oroitzapenen-bildumaren izena eta ukitu «Gorde». Ondoren, gutxienez 20 argazki hautatu behar dituzu oroitzapen-bilduman sartzeko.

Oroitzapen-bildumak pertsonalizatzea

Oroitzapenak editatu edo ukitu ere egin ditzakezu. Aukeratu oroitzapen bat, eta ukitu  oroitzapena sortzeko eta erreproduzitzeko. Oroitzapen erreproduzitzean, ukitu pantaila «Editatu» aukera irekitzeko.





Gaia: aukeratu aurrez instalatutako 10 gaietako bat; bakoitzak bere musika eta efektuak ditu.

Musika: hautatu musika aurrez instalatutako aukeretatik edo aukeratu telefonoan dagoen musika-fitxategi pertsonalizatu bat erabiltzea.

Azala: aukeratu oroitzapen-bideoaren azaleko irudi bat.

Izenburua: editatu oroitzapen-bideoaren izenburua.

Argazkiak: ikusi, gehitu edo editatu argazkiak oroitzapen-bideoan. Oroitzapen-bideoan argazkiak ezabatu ditzakezu. Horretarako, hautatu argazkia, eta ukitu  argazki-bisorean. Gehienez, 40 argazki erants ditzakezu oroitzapen-bideoan. Horretarako, ukitu  eta hautatu oroitzapen-bilduman.


Iraupena: pertsonalizatu bideoaren iraupena.

5.19.4 Argazkiak bilatzea

Argazkien bilaketa adimenduna funtzioa erabilia bila ditzakezu argazkiak.


Sartu «Argazkiak» aukeran, ukitu bilaketa-barra goiko aldean, eta bilatu argazkiak eta bideoak. Argazkiak eta bideoak sailkatuta eta etiketatuta daude, dataren, ekitaldiaren/kokalekuaren eta pertsonaren arabera.

Argazkiak eta bideoak azkar bilatzeko, dataren, lekuaren edo pertsonaren gako-hitza bila dezakezu. Adibidez, «Paisaia» bila dezakezu paisaia gisa identifikatutako eta etiketatutako argazkiak ikusteko.



5.20 Jokoen gunea

OPPOren jokoen gunea jokozale amorratuak direnentzako aplikazio bat da. Mugikorreko joko guztiak erraz-erraz kudea ditzakezu gune bakar batean. Errendimendu handiko modua, distrazionik gabeko modua, jokoa azkartzeko aukera eta beste funtzio berezi batzuk ere baditu, esperientzia hobea izan dadin.




Jokoaren guneak automatikoki exekutatu du jokoaren modua, gune horretako aplikazio bat irekitzean. Jokoaren guneak modu adimendunean egokituko ditu errendimendu-parametroak, jokoaren arabera, funtzionamendu uniforme bermatzeko eta energia-kontsumoa murrizteko.

5.20.1 Pantaila nagusian jokoaren ikonoak ezkutatzea

Jokoaren guneko «Ezkutatu hasierako pantailako joko-ikonoak» aukeraren bidez, pantaila nagusia garbi eta ondo antolatuta eduki dezakezu, joko guztien ikonoak Jokoaren guneetik kudeatuko baitira.

Pantaila nagusian jokoaren ikonoak ezkutatzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Joko-gunea», eta aktibatu «Ezkutatu hasierako pantailako joko-ikonoak». Jokoaren gunean kudeatzen diren ikonoak ez dira bistaratu da pantaila nagusian.

Oharra: «Ezkutatu hasierako pantailako joko-ikonoak» aukera desaktibatzen bada, aplikazioen ikonoak ez dira jatorrizko posizioetara itzuliko, pantaila nagusiaren azken orrian egongo dira.



5.20.2 Jokoen moduaren doikuntzak

Jokoen gunean hiru errendimendu-maila daude, eta jakinarazpenak blokeatzeko hiru modu. Ukitu ezkerreko ikonoa errendimendu-maila aldatzeko, eta eskuinekoa, jakinarazpenak blokeatzeko modua aldatzeko.


Erdiko gunean, bateria-mailaren eta uneko sarearen intentsitatearen adierazleak daude. Irristatu menuan gora, beheko aldetik, funtzio gehiago kargatzeko.

- Errendimendu-moduaren mailak

Modu lehiakorak hobetu egiten du zure joko-esperientzia, jokoen aplikazioen errendimendua, irudien abiadura eta ukipen-erantzuna hobetuta. Errendimendua handitzeak bateriaren kontsumoa igotzea dakar. Aholkatzen dugu modu hori aktibatzea gailua elikatze-iturri bati konektatuta dagoenean.

Modu orekatuak errendimendua eta kontsumoa berdintzen ditu, eta eskakizun txikiko joko gehienetarako balio du.

Kontsumo txikiko moduak murriztu egiten ditu jokoaren irudi-kalitatea eta kontsumoa; beraz, bateria gutxi dagoenean aktibatzea gomendatzen da.



- Sarea bizkortzea

Aktibatu «Red de doble canal inteligente», sareko abiadura modu adimentsuan handitzeko, aldi berean wifi-sareak eta datu mugikorren sareak erabiliz. Funtzio hori erabiltzeak gastu eta mezu gehiago ekar ditzake.




- Distira blokeatzea

Funtzio hau aktibatuta, Distira automatikoa funtzioa desaktibatzen da. Jokoen guneko joko bat kargatzean, pantailak distira egitea edo gehiegi iluntzea eragozten du, ezarritako mailarako distira-doikuntza blokeatuz.


5.20.3 Jokoaren morroia

Jokoetan zabiltzanean, zenbait laguntza-tresna duzu eskura, Jokoaren morroian. Leiho txiki batean bistaratzen dira tresnak. Leiho horretatik zuzenean aktiba ditzakezu pantaila-argazkia, pantaila-grabazioa, deiei erantzuteko aukera..., eta beste funtzio batzuk ere erabil ditzakezu.




Jokoaren morroia aktibatzea

Jokoaren morroia aktibatzeko bi modu daude:

- Sakatu «Ezarpenak», ukitu «Joko-gunea», eta aktibatu «Joko-laguntzailea».
- Ireki Jokoen gunea, ukitu  eskuineko goiko izkinan, eta aktibatu «Joko-laguntzailea».


Jokatzen ari zarela, Jokoaren morroiaren alboko barrara sartzea

- Horizontalean, irristatu kamera dagoen pantailaren ertzean.
- Bertikalean, irristatu ezkerreko pantailaren eskuineko aldetik.



- Jakinarazpenik gabe.

Jokatzen ari zaren bitartean jakinarazpen-mezurik edo push-ik jaso nahi ez baduzu, «Ez molest...» funtzioa aktiba dezakezu.



- Deiei ohar-koadroan erantzutea.

Jokoen gunean, jasotzen dituzun deiak ohar-koadro gisa bistaratuko dira. Koadroaren bidez erantzun diezaiekezu deiei, edo uko egin diezaiekezu, eta jokoa ez da eten edo geldituko.

- Deiak ez onartzea.

Inork etetea nahi ez baduzu, «Baztertu d...» aukera aktibatu dezakezu.

- AFK erreproduzitzea.

«AFK erreproduzitzea» aktiba dezakezu, arrazoiren batengatik joko batetatik urrundu nahi baduzu edo eten nahi baduzu.

Jokatzen ari zarela, ireki «Joko-laguntzailea» leihoa, eta ukitu «AFK erreproduzitzea» aukera, «AFK erreproduzitzea» modua aktibatzeko. «AFK erreproduzitzea» moduan, deiak jasotzeko/egiteko egoeran jarriko da pantaila, eta jokoa bigarren mailan geldituko da. Pantailaren edozein tokitan irristatuz, jokoaren kontrolak berriz aktiba ditzakezu. Aktibatuz gero, «AFK erreproduzitzea» moduak joko-prozesuari eusten dio, eta bateria mantentzen du.


- Pantaila-argazkia

Jokoaren morroiaren menuaren bidez pantaila-argazkiak egin daitezke, edo pantaila grabatu.

- Leiho mugikorreko txata

Leiho mugikorreko txataren bidez, ez duzu zertan atera jokotik mezuei erantzuteko.



Mezularitza-aplikazio batean sakatu ondoren, leiho mugikor txiki batean bistaratuko da, pantailaren albo batean. Jokei bizkor-bizkor erantzun ahal izango diezu, jokatzen ari zarela. Leiho mugikorreko txata onartzen duten aplikazio guztiak bistaratuko dira jokoaren morroiaren menuan.



5.20.4 Pantaila nagusian Jokoaren gunea desaktibatzea

Pantaila nagusian Jokoaren gunearen ikonoa ez bistaratzea hauta dezakezu.

Sakatu «Ezarpenak» > «Joko-gunea» > «Hasierako pantailaren lasterbidea», eta aktibatu «Desgaitu Joko-gunea hasierako pantailan».



6. Zure telefonoa eguneratzea, leheneratzea eta berrezartzea

6.1 Softwarea eguneratzea

Zure telefonoa eguneratu aurretik, egin datuen segurtasun-kopia bat, eta ziurtatu terminala erabat kargatuta dagoela. Eguneratze-fitxategiak wifi-sare batera konektatzen zarenean deskargatuko dira.

Gailua eguneratzeko modu hauek dituzu eskura:

6.1.1 OTA bidez online eguneratzea

«Actualizar automáticamente por la noche» funtzioa aktibatuta duzula, eskuragarri dauden eguneratzeak automatikoki deskargatuko dira goizeko ordu biak eta bostak bitartean, betiere gailua wifi-sare batera konektatua baldin badago, edo erabiltzen ari ez bazara. Sistemaren jakinarazpen bat jasoko duzu, deskargatu ondoren bertsio berria instalatzeko.

Eguneratze-prozesua eskuz hasteko, sakatu «Ezarpenak» > «Actualizaciones de software».

6.1.2 Tokiko eguneratzea

- Deskargatu zure OPPO gailuari dagokion firmware-pakete eguneratua, OPPOren webgune ofizialetik (https://oppo-es.custhelp.com/app/soft_update/).
 - Deskargatu telefonoan OZIP eguneratze-fitxategia.
 - Zoaz fitxategien kudeatzailearen biltegira eta ukitu firmware-fitxategia.
 - Ziurtatu telefonoa erabat kargatuta dagoela, eta, ondoren, ukitu «Actualizar ahora».
 - Eguneratu ondoren, berrabiarazi telefonoa.
-

6.2 Telefonoaren leheneratzea

Telefonoa leheneratu aurretik, ziurtatu zure datuen segurtasun-kopia egin duzula eta beste gailu batean leheneratu dituzula. Informazio gehiagorako, kontsultatu *Telefonoaren segurtasun-kopiak egitea*.

Telefonoa berrezartzeko, sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Egin babeskopia eta berrezarri» > «Berrezarri fabrikako ezarpenak». Leheneratze-aukera hauek daude erabilgarri:

- Sistemaren doikuntzak bakarrik berrezartzea: kasu honetan, gordetako datuak ez dira ezabatuko.
- Deskargatutako aplikazioak eta aplikazioetako datuak ezabatzea: deskargatutako aplikazioak eta haien datuak ezabatu egingo dira, baina sistemaren aplikazioen datuak gorde egingo dira (hala nola argazkiak eta audio-fitxategiak).
- Datu guztiak ezabatzea: datu guztiak ezabatuko dira, argazkiak eta audio-fitxategiak barne.
- Telefono honetako kontaktuak eta deien historia ezabatzea: SIM txarteleko kontaktuak ez dira ezabatuko.
- Telefono honetako SMS eta MMSak ezabatzea: SIM txartelean gordetako mezuak ez dira ezabatuko.

6.2.1 Telefonoaren biltegiratze-datuak leheneratzea

1. Sakatu «Ezarpenak» > «Ezarpen osagarriak» > «Egin babeskopia eta berrezarri» > «Egin babeskopia eta leheneratu».
2. Hautatu leheneratu nahi duzun segurtasun-kopiaren fitxategia eta, ondoren, ukitu «Hasi leheneratzen».



7. Laguntza eta zerbitzua

7.1 OPPOren laguntza-zerbitzuarekin harremanetan jartzea

Laguntza gehiago behar baduzu, jarri harremanetan OPPOren laguntza teknikoko taldearekin hello@oppo.com helbidean.

7.2 Saldu osteko zerbitzua

OPPO erabiltzailearen eskuliburuari, gailuaren ordezeko piezei, gailuaren bermeari eta abarri buruzko informazio gehiago izateko, ikusi: <https://oppo.custhelp.com/>

7.3 Laguntza eskuratzea eta arakatzea

Ohiko galderen erantzunak eta beste zenbait gai kontsultatzeko, sartu hemen: https://oppo.custhelp.com/app/popular_faq

7.4 Informazio gehiago

OPPOri buruzko informazio eta zerbitzu gehiago lortzeko, sartu OPPOren webgune ofizialean: <https://www.oppo.com/es/>.